

ATZERRITARRENTZAT

GIDA



ATZERRITARRENTZAT

GIDA



Argitaratzen du:



Laguntzailea:



Gazteria eta Gizarte Sustapenaren Saila

Beethoven, 10 behe. • 01012 Gasteiz
Tel.: 945 21 48 88 Fax: 945 21 50 56
araba@esk-sindikaturia.org
www.esk-sindikaturia.org
Diseinu eta Maketa: Marra, S.L.
Inprimategia: Lankopi, S.A.
G. L.: 3584-08

Aurkibide nagusia

Sarrera	7
1. Atala. Atzerritartasun erregimena	9
1. Atzerritarren eskubideak	9
2. Sarrera estatu espainolean	11
2.1. Kontzeptu nagusiak	11
2.2. Bisa	12
2.2.1. Egonaldi-bisa (turista, ikasketak)	12
2.2.2. Erresidentzia-bisa	12
2.2.3. Erresidentzia eta lan-bisa	12
2.3. Zer egin sarrera ukatzen denean	12
3. Atzerritarren egoera administratiboa Estatu espainolean	13
3.1. Nola erregularizatu Estatu espainolean legez kontrako egoeran den atzerritar baten egokiera	13
3.2. Dokumentazioari buruzko ideia nagusiak	14
3.3. Egonaldia	15
3.4. Behin-behineko erresidentzia	15
3.4.1. Berriz elkartzeko familiarraren bidezko behin-behineko erresidentzia	16
3.4.1.1. Berriz elkartzeko prozedura eta behar den dokumentazioa	17
3.4.1.2. Berriz elkartutako senideen erresidentzia independente baimena	18
3.4.2. Salbuespenezko egoeraren bidezko behin-behineko erresidentzia	19
3.4.2.1. Finkatzearen bidezko erresidentzia	19
3.4.2.1.1. Finkatze laborala	19
3.4.2.1.2. Finkatze soziala	19
3.4.2.1.3. Espainiarrak diren gurasoen seme-alabak	20
3.4.2.2. Erresidentzia arrazoi humanitarioengatik	21
3.4.2.3. Erresidentzia beste arrazoiengatik	21

3.5. Behin-behineko erresidentzia eta lana	22
3.5.1. Erregimen nagusia: besteen konturako lan-baimena	22
3.5.2. Denboraldi jakin baterako besteen konturako lan-baimena	23
3.5.3. Enplegurako egoera nazionalean ezartzen ez diren berriazko edo lehentasunezko sopusutuak	23
3.5.4. Norberaren konturako lan-baimena	24
3.6. Lan-baimenari salbuespenak	25
3.7. Baimenen berritzea	26
3.8. Baimenen aldaketa	27
3.9. Egoiliar komunitarioak eta senideak	30
3.10. Behin betiko erresidentzia	31
3.11. Nazionalitatea	32
4. Arau-hausteak eta zigorrak	35
4.1. Arau-hausteak	36
4.1.1. Arau-hauste arinak	36
4.1.2. Arau-hauste larriak	36
4.1.3. Arau-hauste oso larriak	36
4.2. Zigorrak	37
4.2.1. Isunak	38
4.2.2. Kanporatzea	38
4.2.2.1. Egoera irregularrean direnen kanporatzea	38
4.2.2.2. Auziperatutako atzerritarrak	39
2. Atala. Lan-eskubideak	41
5. Lan-eskubideak	41
5.1. Langile atzerritarraren lan-eskubideei buruzko nozio nagusia	41
5.2. Lan-kontratua	41
• Froga-denboraldia	42
• Lan-kontratua eta iruzurra kontratazioan	43
• Kontratuaren iraungitzea	44

5.3. Soldata	44
5.4. Lanaldia eta lan egutegia	45
5.5. Oporrak eta atsedenaldiak	45
5.6. Lan-arriskuen prebentzioa	46
5.7. Gizarte Segurantza	47
• Amatasuna	47
• Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak	47
• Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren arabera ez den prestazioa	47
5.8. Langabezia-prestazioa	48
5.9. Lan.demandak	48
5.10. Gatazka kolektiboak eta grebak	48
5.11. Lan Ikuskaritza	49
5.12. Enplegu eta lan agentzietarako zerbitzu publikoetan langile atzerritarren izen-ematea	49
6. Etxe-zerbitzua	49
6.1. Lan-kontratua	49
6.2. Lanaldia	50
6.3. Soldata	50
6.4. Kontratuaren amaiera	50
6.5. Gizarte Segurantza	51
• Kotizazioa	51
• Gizarte-prestazioak	51
3^a Atala. Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-prestazioak	53
7. Gizarte-Zerbitzu eta sariei buruzko kontzeptu nagusiak	53
8. Oinarrizko Errenta (OE)	53
8.1. Zer da Oinarrizko Errenta (OE)?	53
8.2. Zein baldintza bete behar da OErako eskubidea izateko?	53
8.3. Zein kasutan hartzen da EIEU bat erresidentziaren esparru fisikoaren arabera?	54
8.4. Zenbatekoa da OE?	55

8.5. Nola konputatzen dira EIUEn baliabideak OErako eskubidea izateko?	55
8.6. Zein da OErako izapidea?	56
8.7. Zein betebeharrak du OEren titularrak?	
9. Gizarte Premietarako Laguntzak (GPL)	
9.1. Zer dira GPLk?	57
9.2. Zeintzuk baldintzak bete behar ditu onuradunak?	57
9.3. Zein da GPLren erregimen ekonomikoa?	57
9.4. GPLen gehieneko zenbatekoak urtean	58
9.5. Zein da GPLen izapidea?	60
9.6. Zeintzuk dira GPLen onuradunen betebeharrak?	60

Sarrera

Gida honi ekin genionean, lehenik eta behin atzerritarrek izan zezaketen aholkularitza-arazo garrantzitsuenak kontutan hartu genituen. Berehala jabetu ginen hiru zirela: atzerritartasun erregimena, esparru laborala eta zerbitzuena. Azken bi hauetan heldu zitekeen edukia nabarmenki murriztu behar izan genuen, argitalpen handiegia ez ateratzearren. Jakin badakigu hirugarren atalean, adibidez, Eusko Jaurlaritzaren gizarte-prestazioei (Oinarrizko Errenta -OE- eta Gizarte Premietarako Laguntzak -GPL-) soilik heltzearekin kanpoan utzi ditugula etorkinentzat garrantzi handia dituzten beste gizarte-zerbitzu batzuk. Beste hainbeste esan genezakeen etorkinentzat erabakigarriak diren etxebizitza bezalako gaiekin zerikusirik dituztenen inguruan, edo gida honetan ukitzen ez den eskolaratze bera.

Gida honetan, zabalera honetako argitalpen batek izan dezaken argitasun eta informazioari lehentasuna eman diegu. Ia ez dago balorazio-iruzkinik, eta balorazioak ematen ditugunean beharrezkotzat jo ditugun aholku praktikoan osagarriak egin dira. Gure gidaren luzera mugatuaren mesedetan, beste gida batzuk izaten dituzten hainbat elementu kendu behar izan ditugu, besteak beste legegintza-erreferentziak, bibliografia, formularioak, etorkinentzat interesgarriak diren helbideak, eta abar. Gauza guzti hauek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan ESK-k dituen egoitzetara hurbiltzen diren etorkinei eman diezazkiokegu.

Gida hau egiterakoan zuzendu gaituen asmo utilitarista azpimarratzeko azken iruzkina. Aurkibidea bera. Oso estrukturatuta eta zehaztuta dagoen aurkibidea da, kontsulta zehatz bat egin nahi duen irakurlearen lagungarri, behar duten erreferentzia aurkitzen erraz izan dadin.

Gidaren osatzea lan kolektiboa izan da, non Araban ESK-k duen aholkularitza-zerbitzuko jendeak hartu duen parte. Arabako ESKko Immigrazio Bulegoko arduradu-

na den Haizea Marijuanek gida honen lehen atala egin du eta bertan lagundu duten ekarpenak koordinatuditu.

Dokumentazio-iturri ugari erabili da gida hau egiterakoan eta ez dugu egokitzat jotzen denak aipatzea.

Arabako Foru Aldundiko Gazte Saileko Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritzaren diru-laguntzari esker egin da gida hau.

1. ATALA. ATZERRITARTASUN ERREGIMENA

1. Atzerritarren eskubideak

Atzerritarrek, 1978ko Konstituzio espainiarrak aitortzen dituen eskubide eta betebeharrak dituzte, nazioarteko itunek eta Atzerritartasun Legeak dioten terminoetan.

Baina eskubide hauek atzerritarren egoera administratiboaren baitan daude, hau da, bizi-baimenaren jabe den ala ez, egoera irregularrean den ala ez. Hau horrela izanik, eskubideak erabat lermatuak izango ditu.

Errolda (pertsonek bizi den hiriko bizilagun bezala erregistratzen den egitate administratiboa) da etorkin batek egin behar duen lehen izapideetako bat, beste oinarriko eskubideen atea (gizarte eta osasun zerbitzuak, heziketa eta egoera administratibo bera erregularizatzeko) irekitzen baitizkio:

Eskubideen taula Atzerritartasun Legearen arabera	
Eskubideak, askatasunak	14/2003ko lege organikoa
Dokumentazioa.	Eskubide hau nahitaezko betebeharra bihurtzen da Estatu espainolean legalki bizi ahal izateko. Baimenik izanez gero, atzerritar nortasun txartela eskatu behar da.
Erresidentzia eta alde batetik bestera joateko askatasuna.	Atzerritarrak egoera erregularizatuarekin.
Parte-hartze publikoa. Bozka emateko eskubidea.	Bertako atzerritarrei bozkatzeko eskubidea.
Bilera eta manifestazio- eskubidea.	Atzerritarrak egoera erregularizatuarekin.
Elkartzeko eskubidea.	Atzerritarrak egoera erregularizatuarekin.

Eskubideak, askatasunak	14/2003ko lege organikoa
Sindikatzeko eta grebarako eskubidea.	Sindikatzeko: atzerritarrak egoera erregularizatuarekin. Greba: lan-eskubidea duten atzerritarrak. (Eman berri diren epai batzuk konstituzioaren aurkakotzat jo dute bertan legalki bizi direnei hiru eskubide hauen murriztea)
Heziketa-eskubidea.	Adin gutxiko guztiek oinarriko heziketarako eskubidea izango dute; heziketa, derrigorrezkoa eta doakoa da. Hemen bizi diren atzerritarrak (heziketa ez-derrigorrezkoa: erdi eta goi mailakoa).
Osasun-laguntza.	Erroldatutako pertsonak, adin gutxikoak eta haurdun daudenak, egoera administratiboa axolarik ez duela; egoera irregularrean bada osasun txartel unibertsala eskatu behar du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailean. Larrialditarako laguntza: atzerritar guztiak.
Lan eta Gizarte Segurantza.	Lan-kontratua izatea ezinbesteko da egoera administratiboa erregularizatzeko. Ezin da lanik egin lan-baimenik gabe.
Bizitza familian, intimitate familiarra eta berriz elkartze familiarra.	Hemen bizi diren atzerritarrak. Berriz elkargarriak diren senideak: zentzu estuan.
Etxebizitzarako laguntzak.	Bizi-baimena izan behar da.
Gizarte Segurantza eta Gizarte Zerbitzuak (ikus 3. atala).	Atzerritar orok oinarriko zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea du: <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-zerbitzuetara heltzeko eskubidea udaleko gizarte-langilearen eskuz. • Oinarriko Errenta eta Gizarte Premietarako Laguntzak. Berariazko zerbitzu eta prestazioak: atzerritarrak egoera administratibo erregularrean.
Diru-sarrera eta aurrezkien transferentzia.	Atzerritar guztiak.
Benetako babes judiziala.	Atzerritar guztiak.
Egitate administratiboan aurkako errekurtsoa.	Atzerritar guztiak.
Doako laguntza juridikoa.	Atzerritar guztiak: sarreraren ukatze, itzultze eta asilo administrazio-prozeduretan. Edozein jurisdikzio: hemen bizi diren atzerritarrak.

2. Sarrera Estatu espainolean

2.1. Kontzeptu nagusiak

Lehenik eta behin Europar Batasuneko atzerritarrak eta gainontzeko pertsonak desberdinu behar dira; lehenak ez daude Atzerritartasun Legearen mende eta Estatu espainolean sarrera librea dute.

Europar Batasunekoak ez diren herri batzuk bisa beharrik ez izateko hitzarmena eginda dute Estatu espainolarekin, beraz, ez da bisaren izapiderik egin behar.

Europar Batasunekoa ez den atzerritar bat Estatu espainolean legalki sar dadin pasaportearen izan beharko du, baita ere Estatu espainoleko enbaxadan egindako bisa bat, betebeharrak hau deuseztatzen duen hitzarmenaren ezean.

Bisa eskuratzeko, bidaiaren arrazoia justifikatuko duen agiriren bat behar da. Agiri honi gonbidapen-eskutitza deitzen zaio.

- Gonbidapen-eskutitza egin nahi duen pertsonak bere bizilekutik gertuen den polizia-komisarian egin behar du eskaera formala. Bere datu pertsonalak zein atzerritarrarenak eman beharko ditu, eta atzerritarra gonbidatzeko asmo garbia eta Estatu espainolean den bitartean ostatu-gastuen kargu egingo dela adieraziz ere, garbi eta argi utziz zein helbidetan biziko den atzerritarra. Bada honetarako eskaera-orri ofiziala.
- Poliziaren aurrean sinatu ostean, eskaera atzerritarrari igorri beharko dio.
- Atzerritarrak mugan gonbidapen-eskutitza erakutsi beharko du eta bertan frogatu nahiko baliabide ekonomikorik duela berak pasa nahi duen denbora igarotzeko. 2007ko maiatzean indarrean sartu zen Europar Batasunekoa ez den atzerritar batek turista bezala edo iragaitean den atzerritar batek mugan izan behar duen gutxieneko diru kopurua arautzen duen Presidentzia Ordena. Zenbateko hau honako baldintzak beteko ditu:
 - Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %10a pertsona eta eguneko gutxienez.
 - Aipaturiko zenbatekoa Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %90ekoa gutxienez.
 - Mugan, diru hori daraman eska diezaioke, eta eskaera honi esku-diruaz, egiaztatutako txekuez, bidaiatze-ekuek, ordainketa-eskutitza edo kreditu-txarteletan erantzun beharko dio, beti ere banku-kontuaren laburpen edo banku-libreta eguneratuarekin.
 - Mugan, egonaldia murriztu diezaioke edo sarrera ukatu atzerritarrak izan dezakeen diruaren arabera.

2.2. Bisa

Estatu espainolean sartu ahal izateko beharrezko den baimena da. Estatu espainoleko enbaxada edo kontsulatuak ematen du eta pasaportearen edo bidaia-tituluan itsatsita joaten da bisa. Bisek iraungitze-data izaten dute eta kasu gehienetan erresidentzia-baimen desberdinen eskaeraren osagarria izaten da.

2.2.1. Egonaldi-bisa (turista, ikasketak)

Ohiko turista-bisak hiru hilabeteko egonaldia baimentzen du, beste hiru hilabetez luza daitekeena arrazoiak emanaz eta luzapen-denboraldirako bitarteko ekonomikoak asetzeko frogak eskainiz. Ez du lan egitea gaitzen ezta estatu espainolean bizitzea.

2.2.2. Erresidentzia-bisa

Estatu espainolean bizitzea uzten duen bisa, bai bizitzeko bai bizi eta lan egiteko. Edozein baimen lortzeko ezinbesteko da, salbuespen-kasuetan izan ezik.

2.2.3. Erresidentzia eta lan-bisa

Estatu espainolean bizi eta lan egiteko baimena izan ondoren atzerritar bati ematen zaion bisa da, ugazaba batek egin behar du eskaera. Bisa honek 30 eguneko balio du Estatu espainolean sartzen den unetik, eta ezin da luzatu.

2.3. Zer egin sarrera ukatzen denean?

Mugara heltzean Europar Batasuneko ez den pertsona baten sarrera ukatzen bada, pertsona hori itzultzeko prozesu administratibo bati ekingo zaio, ondorengo sartze-debekuarekin.

Itzultzeko prozedura administratiboaren behin betiko erabakiaren aurretik, mugen kontrolerako funtzionario polizial batekin elkarrizketa bat emango da, bertan, abokatu bat eta itzultzaile bat, berau beharrezkoa balitz, izango dira.

Abokatu propioa ez izanez gero, ofiziozko abokatua eska daiteke. Eta hau da balizko itzultze erabaki administratibo baten aurrean errekurtsioa jartzeko ardura-duna.

Itzultzeko espediente administratiboa erabakitzen den bitartean, aireportuko errefus-eremuan egun batzuk emango ditu.

Abokatuari bidaiaren arrazoiak egiaztatzen dituzten dokumentazio edo frogak guztiak emango zaizkio.

Sartzeko bisaturik behar ez duten pertsonen betebeharrak araututa daude neurri batean bada ere, hala ere araudi berriak funtzionario polizialari abagune txiki bat ematen dio. Errekurtsio eta alegazio guztiak kasu hauek arautzen dituen araudian oinarritu beharko dira.

Mugan atxikituta den atzerritarren sendia telefonoz jar daiteke harremanetan atzerritarrekin.

Itzultzeko prozeduraren baten irekierak ez du galarazten ezta ukatzen asilo politikoa eskatzeko eskubidea.

Itzultzeko prozedurak itzultzea erabakitzen badu, atzerritarrak bidaiari ekin zion herrira itzuliko da.

3. Atzerritarren egoera administratiboa

Estatu espainolean

3.1. Nola erregularizatu Estatu espainolean legez kontrako egoeran den atzerritar baten egokiera

Ondoren, Estatu espainolean legalki bizitzeko diren baimen desberdinen berri emango dugu; baina kontutan harturik egoera irregularrean den atzerritarren kopuru altua, egoera hau erregularizatzeko dauden alternatibekin hasiko gara.

A. Salbuespeneko egoeren bidezko erresidentzia (3.4.2. atalean adierazten da)

B. Lan-eskaintza lortzea (erregimen nagusia)

Estatu espainolean ezin da era irregularrean izan (eskaera ukatuko da edo ez da honen izapiderik onartuko). Etorburuko herrira bidaiatu behar da, honela dio araudiak. Jarraitu beharreko prozedura, erregimen nagusiarena da:

- a. Enplegatzaileak "erresidentzia eta lan-baimena"ren eskaera egingo du Gobernuaren Ordezkaritzaren Lan Sailean.
- b. Behar den dokumentazioa:
 - Eskaera-orri ofiziala.
 - Lan-kontratua (urte baterako).
 - Enplegatzailearen pasaporte osoaren fotokopia.
 - Enplegatzailearen Nortasun Agiri Nazionala (NAN).
 - Enplegatzaileak inor kontratatzeko baliabide ekonomiko nahikorik daukanaren ziurtagiria (errenta-zerga, elkarteen gaineko zerga...).
 - Langileak betebeharreko jardueraren memoria deskriptiboa.

Erabakia enplegatzaileari adieraziko zaio eta aldekoa balitz, tasak ordaindu beharko ditu; legearen arabera, kontratatuak etorburuko herritik egin behar duen bidaia eta paperen izapideak enplegatzaileak ordaindu behar ditu.

Enplegatzaileak erresidentzia eta lan-baimenaren erabaki originala etorburuko herrira igorri beharko du hilabete baten buruan.

c. Atzerritarrak bere etorburuko herriko kontsulatuan lan-bisaren izapideak egin beharko ditu. Honako dokumentazioa eskatzen dute:

- Schengen-go bisa ereduaren eskaera.
- Pasaporte osoa.
- Agiri tamainako lau argazki.
- Aurrekari penalen ziurtagiria.
- Ziurtagiri mediku ofiziala.
- Erresidentzia eta lan ematearen erabaki originala.

Kontsulatuak baieztatu dezake atzerritarra Estatu espainolean izan den ala ez, eta beraz elkarrizketatu ere.

d. Estatu espainolerako bidaia

Dena ondo joanez gero, izapideak egiten direnetik 90 egun daude Estatu espainolerako bidaia egiteko. Mugan bisari zigilua emango diote.

Enplegatzaileak hilabete epea izango du langileari alta emateko Gizarte Segurantzaren.

Erresidentzia-txartela lortzeko atzerritarren bulegora edo komisariara jo behar da. Txartel honek iraunaldi zehatza du, beraz, epea amaitu aurretik berri egin behar da (iraungitze-datatik hiru hilabete geroago gehienez) bestela iraungiko da eta egoera irregularra bueltatu.

3.2. Dokumentazioari buruzko oinarrizko ideiak

Atzerritartasun Legeak migrazio-fluxua arautu eta kontrolatu nahi du, eta lan egiteko eta bizitzeko behar diren baimenak eska ditzatela Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrak behartuz. Hau dela-eta, migratzea erabakitzen duen pertsonarentzat egoera administratibo erregulatua lortzea eta mantentzea ezinbestekotzat bihurtzen da.

Behar diren agiri eta eman beharreko urratsen berri eman aurretik, honako hau izan behar da kontutan:

- Dokumentazio guztiaren originala eta kopia aurkeztu behar dira.
- Izapidea ukatuz gero, bi errekurso-bide daude. Alde batetik, berraztertze helegitea, hilabeteren buruan ezezkoa jasotzen den egunetik kontaktatzen hasita eta ukatu duen erakundearen beraren aurrean aurkeztu beharrekoa; bestaldetik, administrazioarekiko auzi-errekursoa, berraztertze helegiterako

ukatu den egunetik kontatzen hasita bi hilabeteren buruan. Eskumeneko epaitegia herrialdeko administrazioarekiko auzi epaitegia da.

- Eskaera egiterakoan, funtzionarioak eskaera honen kopia zigitatua eman behar dio eskatzaileari. Errekurtsoa egin dela baieztatzen duen froga da eta baliagarria izan daiteke izapidearen nondik norakoak eskatzerakoan.

3.3. Egonaldia

90 egun baino gutxiagoko izatea da; beste 90 egunetz luzatu daitekeena, egonaldi-luzapenez edo erresidentzia-baimenaren izapideak egiteko. Egonaldia bisaz baimenduta dago.

3.4. Behin-behineko erresidentzia

90 egunetik gora eta bost urte baino gutxiago Estatu espainolean bizitzera baimentzen duen egoera da.

Lehen erresidentzia-baimena behin-behinekoa izaten da eta urte bateko iraunaldia du. Baimen honek mugaketa geografiko eta profesionala izan ohi ditu.

Bigarren erresidentzia-baimena behin-behinekoa da eta bi urteko iraunaldia du; lehen erresidentzia-baimena berrituz lortzen da.

Hirugarren erresidentzia-baimena behin-behinekoa ohi da eta bi urteko iraunaldia du; bigarrenaren iraunaldia amaitzean lortzen da.

Gogoratu baimenaren titularrak berak baimenak berritu behar dituela, honetarako epeak kontutan hartu behar dira; epe hau, iraungitze-datatik 60 egun aurretik hiru hilabete gerora bitartekoa da (akats arinagatik isunaz zigor daiteke).

Erresidentzia-baimenak ez dakar lan-baimenik, beraz, atzerritarrak lan egin ahal izateko lan-baimena eskatu beharko du.

Lan-jarduerak egin gabe bizilekua izateko, etorburuko herrian Estatu espainolak duen bulego diplomatikoan edo kontsularitzan eskaera horri dagokion bisa eskatu behar da. Honako dokumentazioa da eskatzen dena:

- Eskaera-orria.
- Indarreko pasaporte, urte bateko jadanekotasunaz.
- Aurrekari penalen ziurtagiria.
- Ziurtagiri medikua.
- Estatu espainolean bizileku izan dezakeela lanik egin gabe bermatzen dituzten agiriak.

Administrazioak eskatzaileari elkarrizketarako hitzordua eman diezaioke enbaxadan edo kontsulatuan. Elkarrizketa horretan bi funtzionario gutxienik izan behar dira, eta itzultzaile bat berau beharrezkoa balitz. Hitz egindakoarekin akta bat egin behar da eta elkarrizketan izan direnek akta hau sinatu beharko dute. Akta honen kopia bat atzerritarrari emango zaio.

Gobernuaren Ordezkaritzak eskaera jaso eta bi hilabeteren buruan, poliziaren aurretiko txostenarekin, erresidentzia ematea ala ukatzea erabakiko du. Erabaki hau kontsulatu edo enbaxada eta Madrilgo Kanpo Arazoetarako Ministeriori helaraziko die.

Aurreko erabakia aldekoa balitz, misio diplomatikoak atzerritarrari erabakiaz jakinaraziko dio atzerritarrak berak bisa jaso dezan.

Bisa jaso ostean, eta honen iraunaldian, Estatu espainolean sartuko da eta hilabete baten buruan, atzerritarraren nortasun txartela eskatu beharko du atzerritarrak berak; txartel honek urte bateko baliozkotasuna du.

3.4.1. Berriz elkartzeko familiarraren bidezko behin-behineko erresidentzia

Legeak bizitza eta intimitate familiarerako eskubideak aitortzen ditu, beraz, hemen bizi den atzerritarrak bere familia ekartzeko eskubidea du. Honetarako behin-behineko erresidentzia-baimena berritua izan behar du (bi urtekoa).

Honakoak berriz elkar daitezke:

- Ezkontidea, beti ere izatez edo eskubidez banatuta ez badago eta ezkontza ez bada lege-iruzurrak egin. Ezkontide bakarra berriz elkar daiteke. Berriz elkartu nahi duena behin baino gehiagotan ezkontuta badago, une horretan bere ezkontidearekin bakarrik berriz elkar daiteke eta baieztatu ondore aurreko banaketa prozedura juridiko baten bidez eman dela, non etxebizitza, pentsio eta jakiei dagokienean ezkontidearen egoera zehaztu den.
- Hemen bizi den eta honen ezkontidearen seme-alabak (adoptatuak barne), azken hauek 18 urte baino gehiago izan behar dute edo ezinduak beharko dira izan.
- Ezkontide bakar baten seme-alabak direnean, guraso-agintea bere kargu izango da edo zaintza berak izan eta bere ardurapean ukan seme-alabak. Guraso-agintea erabaki judizialean oinarrituko da, notario-akta nahikoa ez delarik.
- 18 urte baino gutxiagokoak edo ezinduak, hemen bizi den atzerritarra hauen arduradun legala denean.
- Hemen bizi edo honen ezkontidearen gurasoak, hauek aurrekoen kargu direnean eta guraso hauek hemen bizitzeko beharra frogatzen denean (kontutan

hartzen da bakarrik bizi direla, adina, anaia-arreba gehiago izatea gurasoen kargu egiteko, berezko diru-sarrerak dituzten ala ez...). Hemen bizi denaren kargu daudela frogatzeko, gurasoen benetako mendekotasun ekonomikoa adieraziko du, baieztatu beharko da azken urtean gurasoei dirurik transferitu zaiela edo hauen gastu familiarrei aurre egin behar izan dietela.

3.4.1.1. Berriz elkartzeko prozedura eta behar den dokumentazioa

Berriz elkartzeko senideek, berriz elkartzeko dituen pertsonaren baimen bera eskuratzeko dute. Lehen baimenak berriz elkartzeko posible egin duen baimenaren irautze-data bera du. Hortik aurrera baimen-berritzeak elkarrekin egingo dira:

1. Berriz elkartzeko familiarren bidezko behin-behineko erresidentzia-baimenerako eskaera aurkeztea

Gobernuaren Ordezkaritzan edo atzerriartasun bulegoan aurkeztu beharreko dokumentazioa (originalak eta kopiak):

- Eskaera-orria behar den bezala beteta.
- Berriz elkartzeko suspertzen duenaren indarreko pasaporteak.
- Berriz elkartzeko nahi den pertsonaren pasaportearen kopia.
- Eskatzailearen erresidentzia-txartel berrituaren originala edo hasieran emandako txartela berritzeko-eskaeraren frogagiria.
- Lotura familiarra baieztatzen duen agiria (ezkontza-ziurtagiria, jaiotza-ageria...); agiri hau etorburuko herriko aginpideak legeztatuta izan behar du, Estatu espainoleko enbaxada edo kontsulatu nagusiaren zigilua eduki behar du edo Hagako Apostilarekin.
- Familia mantentzeko adina baliabide ekonomikoak dituela frogatzea (lan-bizitzaren agiria, lan-kontratua, errenta-aitortza edo azken hiru nominak).
- Etxebizitza egokia duela baieztatzen duen udalaren agiria.
- Berriz elkartzeko duen eta honen familiarentzat etxebizitza egokia duen frogak (alokairu-kontratua, jabetza-ekritura, hipotekaren agiria).
- Berriz elkartzeko duena ez dela beste ezkontide batekin hemen bizi zintzeko aitortza.
- Berriz elkartzeko duenaren gurasoen mendekotasun ekonomikoaren frogak (banku-transferentzien agiriak, diru-igorpenak, enpresen bidezko diru-bidalaketak...).
- Betebeharrak guztiak betetzen badira, baimena ematen zaion erabakia jasoko du. Erabaki hau berriz elkartzeko duen pertsonari, Kanpo Arazoetarako Ministerioari eta berriz elkartzeko izango den pertsona bizi den Estatu espainolek eman behar du.

noleko kontsulatuari helaraziko zaie. Hala ere, komenigarria da berriz elkar-tzen duenak berriz elkartua izango denari igortzea erabakia.

2. *Bisa eskatu*

Berriz elkartua izango denak berriz elkartze familiarraren bisa berak zuzenean eskatu beharko du eta honetarako berriz elkartuko duenaren aldeko erabakia ematen den unetik bi hilabeteko epea izango du.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera-orria.
- Indarreko pasaporte, eta honek gutxieneko lau hilabeteko iraunaldia izan beharko du.
- Aurrekari penalen ziurtagiria.
- Berriz elkartu nahi duenaren erresidentzia-baimenaren kopia.
- Ahaidetasun-agiria (jaiotza-agiriak, ezkontza-agiriak...).
- Gaixotasun koarentenarik ez duela baieztatzen duen medikuaren agiria.

Teorian, eskaera egiten den unetik hilabeteren buruan erabaki egin behar da. Erabakia aldeko bada, bi hilabeteren buruan berriz elkartua izango denak berak bisa jaso beharko du. Adin gutxikoen kasuan, hauen ordezkari batek jaso dezake.

3. *Estatu espainolerako bidaia eta atzerritar nortasunaren txartela eskatzea*

Bisa jaso ostean eta honen iraungitaren barruan (inoiz ez hiru hilabete baino gehiago) Estatu espainolerako bidaia egin beharko du eta hilabetearen buruan Atzerritar Nortasun Agiria eskatu.

Berriz elkartzearen bidezko erresidentzia-baimena eskuratzen duten atzerritarrek erresidentzia eta lan independente baimena lortzen badute berriz elkartze fami-liarrarako eskubidea dute. Berriz elkarturiko gurasoek berriz elkar dezakete baldin eta behin betiko erresidentzia independente baimena lortu eta kaudimen ekono-mikoa frogatzen badute.

3.4.1.2. **Berriz elkartutako senideen erresidentzia independente baimena**

Baimen hau honako baldintzak betez gero lortuko da:

- Berriz elkartutako pertsonak lan-baimena lortzen badu (denboraldi jakin baterako ez bada, edo obra edo zerbitzu jakinerako ez bada, edo soldata Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiago bada urtekoan).

- Ezkontideak bost urteko bizilekua legala izan badu.
- Genero-bortxaren biktima bada (babeserako agindu judizialarekin).
- Berriz elkartu nahi zuena hil bada.

3.4.2. Salbuespenezko egoeraren bidezko behin-behineko erresidentzia

3.4.2.1. Finkatzearen bidezko erresidentzia

Estatu espainolean zuzenean lortzen den erresidentzia-baimena da. Ez da bisarik behar, beraz ez da etorburuko herrira itzuli behar.

Araudiaren azken erreformaren ondoren honako hiru finkatze-egoera ematen dira.

3.4.2.1.1. Finkatze laborala

Zuzenbidean onartzen den edozein agiriaz, ohikoena errolda izaten da, frogatu behar da Estatu espainolean bi urtez jarraian izan dela.

Ezinbestekoa da etorburuko herrian eta Estatu espainolean aurrekari penalik ez izatea.

Baita ere baieztatu behar da urte bat lanean aritu dela. Lan hau Lan Ikuskaritzan sartutako salaketaren bidez frogatuko litzateke edo lan-harremana eta antzinatasuna baieztatzen duen erabaki administratibo edo judizialaz.

Honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

- Pasaporte osoa edo bidaia-tituluaren originala eta kopia.
- Etorburuko herriko aurrekari penalen agiria.
- Aurreko bi urtetan hemen bizileku izan duela baieztatzen dituzten originalak eta kopiak.
- Urte bat baino gehiagoko lan-harremana frogatzen duen erabaki administratiboa edo Gizarte Epaitegiaren epaia.

Sistema hau praktikan korapilatsua da, lan-harremana frogatzeaz gain urte bateko lan irregularren antzinatasuna ere frogatu behar delako. Azpi-ekonomian paper eza ohikoena da, eta honek Gizarte Epaitegiaren aurrean egin beharreko demandak eragozten ditu. Beraz, Lan Ikuskaritza langileen aldeko erakunde izatetik urrun da.

3.4.2.1.2. Finkatze soziala

Estatu espainolean hiru urte eraman eta ugazaba batek eta langileak sinaturiko lan-kontraturik aurkezten duenaren egoera da. Aldi berean, indarreko erresidentzia-baimena duten pertsonekin lehen mailako familia-loturak dituela frogatu beharko ditu edo erroldatuta dagoen udalaren gizarte-txertatzeari buruzko txos-

tena aurkeztu. Udalaren txosten honetan honakoak eman beharko dira: atzerritarra bertan bizi den denbora; dituen bizi-baliabideak; komunitatearen hizkuntzen eza-gutza-maila; ikastaroetan, elkartetan, kirol-elkartetan, eta abarretan parte hartu duela...

Eskatzen den dokumentazioa honako hau da:

- Pasaportearen originala eta kopia; pasaporteak, 4 hilabeteko gutxieneko iraunaldia izan behar du.
- Etorburuko herriko aurretiko penalak; eskaera baino hiru hilabete lehenago eginda izan beharko du.
- Estatu espainolean azken hiru urtetan etenik gabe bizi denaren agiria (errol-da-agiria).
- Lotura familiarak ziurtatzen duen agiria (jaiotza-agiria, ezkontza-agiria... behar bezala legezatuak).
- Udalaren txostena.
- Enpresaren dokumentazioa:
 - Enpresaren edo autonomoaren buletina Gizarte Segurantzaren.
 - NIFa enpresen kasuan edo NANA kontratatzen dutenek pertsona fisikoak direnean, eta kooperatiben kasuan bazkideen erregistro-liburuaren kopia konpultsatua.
 - Etxeko lanen kasuan enplegatzaileak sendotasun ekonomikoa frogatu beharko du eta errenta-aitorpena aurkeztu.
 - Estatu espainolean behar bezala homologatua den titulazio akademikoa, lanak honela behartzen badu.

Eskaera aurkezteko garaian, interesatua eta enplegatzailea batera agertu behar dira.

Finkatze-sistema hauek enplegu irregularrari aurre egin eta langileen eskubideak aitortzeko gobernuaren borondatearen adibidetzat emanak izan dira. Baina errealitateak zerikusi gutxi du gobernuak dionarekin. Bi sistemak azpi-ekonomiaren jarraipenean oinarritzen dira. Lehen kasuan, lan-finkatzean hain zuzen, lan irregularraren antzintasuna frogatu behar da; bigarrean, urte bateko kontratua izatea exijitzen da. Baina ekonomia eta lan-harremanen funtzionamendua kontutan harturik, inork uste al du urte bateko kontratuak eskainiko direla aurretiko lan-harremanik eman gabe?

3.4.2.1.3. Espainiarrak diren gurasoen seme-alabak

Honako dokumentazioa exijitzen da:

- Pasaporte osoa, originala eta kopia.

- Etorburuko herriko aurrekari penalen agiria.
- Lotura familiarra baieztatuko duen agiria (eskatzaillearen jaiotza-agiria).
- Aita edo ama espainiarrak direla frogatzen duen agiria (aita edo amaren jaiotza-agiria).

3.4.2.2. Erresidentzia arrazoi humanitarioengatik

- A. Kode Penalaren 311. artikulutik 314.ra tipifikaturiko delituen biktimak (langileen eskubideen aurkako delituak), diskriminazioaren biktimak, familia-bortxaren delituaren biktimak.
- B. Gaixotasun larria pairatzen dituzten pertsonak, osasun-asistentzi espezializatua behar dutenak eta ezinezkoa dena etorburuko herrian, eta asistentzi hau etenez gero oso arriskutsua litzatekeena pertsonaren osasunarentzat.
- C. Bisaren bila, euren etorburuko herrira itzultzean, bere edo honen familiaren segurtasuna arriskuan dagoela frogatzen dutenek.
- D. Nazioarteko babesagatik. Etorburuko herrian gatazka latzak direlako batez ere.
- E. Agintari judizial, polizial, fiskal edo administratiboekin elkarlanean aritzeagatik.

Kasu hauetan honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

- Pasaporte osoa, originala eta kopia.
- Etorburuko herriko aurrekari penalen agiria.
- Baimenaren arrazoiak konfirmatuko dituzten agiriak (biktima izan denaren delituaren epaia, txosten medikua...).

3.4.2.3. Erresidentzia beste arrazoiengatik

- A. Adin gutxikoak babesteko erakundeaz tutelaturiko adin gutxikoak. Tutelatuta daudela baieztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, baita ere egitate hezitzailetan eta erakundearen jardueretan parte-hartze egokia izan dutela egiaztatzen dituzten agiriak eta adin gutxikoen babeserako erakundearen gomendioa erresidentzia-baimena eman diezaioten.
- B. Bere kargu duen Europar Batasuneko baten familiarra.
- C. Nazionalitate espainiarra duten adin txikikoen aurreko ahaideak. Epai batzuk daude aipaturiko egoera aitortzen dituztenak salbuespen egoeraren bidezko bezala erresidentzia lortzeko.

Atzerritarrak erresidentzia-baimenaren eskaerarekin batera, erresidentzia-baimenaren indarraldian, lan-baimena eska dezake; honetarako ugazabak eta langileak

berak sinaturiko urte bat gutxienerako iraunaldia duen lan-kontratu bat aurkeztu beharko du. Kasu hauetan ez da enpleguaren egoera nazionala kontutan hartuko.

3.5. Behin-behineko erresidentzia eta lana

Hau da etorkin gehieneko egoera. Etorkinak euren herritik ateratzen dira bizi-baldintzak hobetzeko helburuarekin eta lan-baldintza hobetoak izango dituen lan bat izateko.

Behin-behineko erresidentziara heltzeko, lan-baimen bat izan behar dute; eta lan-baimena izateko enplegu-eskaintza izan behar dute edo bere konturako lana egiteko duela baieztatuko duen proiektua aurkeztu.

Lana etorkinarentzat bizibidea izateaz gain, denontzat bezala, ezinbesteko betekizuna da hemen legalki bizi ahal izateko. Europar Batasuneko ez den etorkin batek lanari uzten dion unetik egoera irregularrean izateko arriskua du gure artean.

Hau dela-eta, bistan da Atzerriartasun Legea printzipio diskriminatzaile baten gainean ematen dela. Eta gutxi balitz, lehen baimena lortzeko "enpleguaren egoera nazionala" kontutan hartzen da, hots, eskaintza ematen den sektorean nazionalitate espainiarra duten langileak langabezia-bulegoetan izena emanda duten eta lanpostu hori betetzeko gaitasuna duten hartzen da kontutan. Beraz, lan-eskaintza guztiek ez dute lan-baimenik ematen, nahi edo ezagutzen den jardueran ezin da lanik egin, baizik eta uzten zaion jardueran; eta hauen lan-baldintzak, normalean, prekarioenak izaten dira.

Bere konturako lana egiteko baimena lortu nahi duten pertsonen kasuan, autonomia izateaz gain, inbertitzaileak izatea exijitzen zaie, bere proiektuak ekonomia espainiarrari ekarriko dizkion etekinak frogatu beharko dituelarik. Haei eskatzen zaiona ez da hemen jaiotako autonomo bati eskatzen zaiona. Guztiei eskatzen zaionaz gain, enpresa-proiektu bat aurkeztu beharko du, non zehaztuko beharko dituen inbertsioa eta sor dezakeen enplegua.

Bestaldetik, enplegu-eskaintza guztiak etorburuan egitera bideratuta dago, eta langilea hemen bada izapideak egitera behartuz.

Izapideak, epe luzeak, izapide eta lan-merkatuaren funtzionamenduaren arteko lotura eza, jatorrizko herrira itzuli beharra eta hilabeteak ematea erantzunaren zain... irregulartasunaren kronifikazioaren arrazoiak batzuk dira.

3.5.1. Erregimen nagusia: besteen konturako lan-baimena

Ugazaba espainiarrek lan-eskaintza izendunen bidez lan eta erresidentzia-baimenen izapideak egiteko Atzerriartasun Legeak aurreikusten duen prozedurari Erregimen Nagusia deitzen zaio.

Lan-eskaintza bat izatea beharrezkoa da, eta hau izenduna izango da, hau da, langile atzeritar baten izenean emango da. Azkenik, interesatua ezingo da egoera

irregularrean izan, eta horrela ez balitz, bere herrira itzuli beharko luke pasapor-tearen konpultsaren izapidea egiteko.

Lan-eskaintza bat egin behar duen enplegatzaileak baieztatu behar du atzerritar-rrari eskaini nahi dion lanpostua INEMek herrialdeka, hiru hilabetetik behin, argi-taratzen duen katalogoan aurkitzen dela, betetzen zailak diren jardueren artean urkitzen dela hain zuzen ere. Katalogoan bada, eskaintza egin dezake, eta ez bada, INEMi adierazi beharko dio lanpostua betetzeko zailtasunak dituela eta beste herri bateko langile bat kontratatu nahi duela; ondoren, lan-eskaintza INEMen aurkeztu beharko du eta eskaintzen den lanpostua betetzeko langabezia den nazionalita-te espainiarra duen pertsonarik edo langabezia den lan-baimendun etorkinik ez balego, INEMek 15 egunen buruan enplegatzaileari ziurtagiri bat igorriko dio, bertan adieraziko zaio ez dagoela inor prest lanpostu hori betetzeko eta lana egiteko baimena eska dezakeela. (Ikus aurrerago ematen diren berariazko edo lehentasunezko balizkoak).

3.5.2. Denboraldi jakin baterako besteen konturako lan-baimena

Erresidentzia eta besteen konturako lan-baimenerako bezalako izapideak egin behar dira eta honako jarduerentzako izango da:

- Denboraldi jakin edo kanpaina baterako jarduerak (nekazal-lanak). Baimenaren indarraldia kontratuarena berbera izango da (9 hilabetekoa gehienez). Kontratatzaileak ostatu egokirik eskaini beharko die, joan-etorria antolatu eta bere gain lehen bidaiaren gastuak gutxienik hartu. Langile etor-kinak kanpaina bukatu bezain laster bere herrira itzultzeko konpromisoa du eta bisa eman zioten kontsulatuan bere burua aurkeztu beharko du.
- Muntaiak industrialak, elektrikoak, eraikuntza, azpiegitura, gasa, trenak, tele-fonoak, ekipoen mantentze-lanak...
- Goi-mailako pertsonak egin beharreko aldi baterako jarduerak, kirolari pro-fesionalak, artistak... Hauek jarduera profesionala burutzeko baimena izan beharko dute eta euren etorburuko herrira itzultzeko konpromisoa ere.
- Prestakuntza eta praktika profesionalen egitea. Praktikaldiko lan-kontratua sinatu beharko du eta euren etorburuko herrira itzultzeko konpromisoa hartu.

3.5.3. Enplegurako egoera nazionalen ezartzen ez diren berariazko edo lehentasunezko sopusuak

Esan dugu Atzerritartasun Legea, lehentasun nazionalaren printzipio diskrimina-tzailan oinarritzen dela. "Enpleguaren egoera nazionala" indarrean jartzen ez diren egoerak onartzen ditu Legeak, eta honen ondorioz, edozein lan-eskaintzak lan egiteko balio du:

- Konfiantza-lanpostuak betetzea (goi-mailako zuzendaritza-jarduerak, goi-mailako langile adituak...).
- Estatu espainolean baimen berrituarekin bizi den atzerritar baten ezkontide edo seme-alaba izatea.
- Espainiar nazionalizatu baten seme-alaba izatea edo Estatu espainolean urte bat gutxienez bizileku duen komunitario baten seme-alaba, zeinari ezin zaion erregimen komunitarioa ezarri.
- Lan-baimen baten titularra izan eta berau, baimena alegia, berritzea.
- Instalakuntza edo talde ekoizleetan berrikuntza-lanetarako muntaietan aritzen diren langileak.
- Errefuxiatua izatea estatutuaren ematearen aurreko urtean.
- Aberrigabetzat aitortua izatea edo aipaturiko estatutua amaitu eta hurrengo urtean kondizio hori galdu duena.
- Nazionalitate espainiarra duten ondorengoak edo asabak bere kargura dituenak.
- Espainiar baten seme-alaba edo iloba izatea.
- Lan-adinean den adin gutxiko atzerritarra izatea, erresidentzia-baimenarekin eta adin txikikoen babeserako erakunde baten mende dena, eta erakunde babesleak adin txikiaren gizarteratzea faboratzen dituzten jardueretarako eta bere familiarengana bere jatorrizko herrira itzultzea ezinezkoa dela baieztatzaren denean.
- Salbuespenezko arrazoiengatik erresidentzia-baimena lortu dutenentzat.
- Lau urte naturaletan aldi baterako lan-baimenen titularrak izan direnak eta jarduera bakoitzaren ostean euren herrira itzuli direnak.

3.5.4. Norberaren konturako lan-baimena

Etorkin bati jarduera ekonomikoak era autonomoan egiten uzten dion baimena da. Auto-enplegu jardueretan eta enpresa txikiak sortzeko erabiltzen den formula da (taberna, ile-apaindegia, mintzalekua, garraiolaria...).

Baimen honetan eskakizun garrantzitsuena aurrera eraman nahi den jarduera ekonomikoaren proiektua da. Administrazioari negozioaren zehaztasunak zehatzmehatz eman behar zaizkio.

Prozedurak bisaren izapidea egitea exijitzen du; atzerritarra egoera erregularrean hemen ez bada, izapideak bere herritik egiten hasi beharko da.

Honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Eskaera-orria.
- Indarreko pasaporteak.
- Aurrekari penalen agiria, etorburuko herriko agintariek emandakoa.
- Gaixotasun kuarentalak ez dituela adierazten duen agiri medikua.
- Titulazioa edo ogibidea burutzeko gaitasuna adierazten duen agiria.
- Inbertsioaren akreditazioa edo finantza instituzio baten laguntzeko konpromiso garbia.
- Enpresa-proiektua, aurreikusten den inbertsioa, errentagarritasuna eta sor daitezkeen lanpostuak.

Kontsulatuak, jarduera burutu nahi den herrialdeko Gobernu Ordezkaritzari helaraziko dio espedientea.

Gobernuaren Ordezkaritzak erabakia hartuko du eta kontsulatuari, Kanpo Arazoetarako Ministerio eta eskatzaileari erabakiaren berri helaraziko die.

Hilabete baten buruan erresidentzia eta lan-bisa eskatu beharko dira, eta norberak jaso beharko ditu.

Bisa eskuratu ostean Estatu espainolera jo beharko du eta Gizarte Segurantzaren alta eman. Hilabete bat dago Atzeritar Nortasun Txartela eskatzeko.

Eskatzailea Estatu espainolean legalki bizi bada, eskaera hemen egingo da, kontsulatura joan beharrik gabe.

3.6. Lan-baimenari salbuespenak

Badira etorkinak lan-baimenik behar ez dutela lanik egiteko, baina honetarako Gobernu Ordezkaritzaren agiri bat behar da, agiri honek salbuespen hau aitortzen die.

Jarduerak honakoak dira:

- Estatuak, Autonomia Erkidegoak, Udalak edo ikerketa suspertzea helburutzat ukan eta parte hartze publiko gehiengoaren duten erakundeak kontratatu edo gonbidatutako tekniko eta zientzialariak.
- Unibertsitate batek gonbidatu edo kontratatutako irakasleak.
- Beste Estatu edo ospe handiko erakundeen mende diren instituzio kultural edo irakaskuntza-instituzioetako zuzendariak eta irakasleak.
- Lankidetzak-akordioak betez administrazio estatal edo atzerriko funtzionario zibilak edo militarrik.
- Behar bezala akreditatutako hedabideetako korrespontsalak.

- Nazioarteko misio zientifikoetakoak.
- Jarraipenik izango ez duen jardueraren bat egitera datozen artistak.
- Erregistroan behar bezala izena emanda duten Erakunde erlijiosoetako ministro erlijiosoak edo eliza eta konfesioetako ordezkariak.
- Nazioarteko homologazioa duten sindikatu etako ordezkariak, gobernu eta administrazio-organismoetan aritzen diren pertsonak.
- Jaiotzaz espainiarrak izan eta nazionalitatea galdu dutenak.
- Instituzio baten tutoretzapean izan eta lan egiteko adinean diren adin gutxiak, eta instituzioaren proposamenaz tutelatuen gizarteratzearen onerako egingo diren hainbat jarduerak dirauten bitartean.

Salbuespen haueko baten titularra izateak ez du inolako eskubiderik ematen erresidentzia eta lan-baimena lortzeko.

3.7. Baimenen berritzea

Baimen guztiak berritu egin behar dira. Erresidentzia eta lan-baimenak urte bateko edo biko iraungitze-data dute; baimen hauen iraunaldia amaitzean baimen hauek berritzea eskatu behar da Estatu espainolean lan eta bizitzeko egoera legala mantentzeko. Baimen bat beste bat hobeagoa bilakatzen da, aurrekoa baino muga gutxiago duen hobeago batean hain zuzen ere. Berritzeko, lanean ari dela frogatu behar da edo lan-eskaintza duela eta legediak ematen duen gutxieneko denboraz aritu dela baimendutako jardueran (sei hilabetetik urte batera bitarte).

Berritze-eskaera hutsak lan-baimenaren baliotasuna luzatzen du. Eskaeraren frogagiri zigilatua eta balioa galdu duen agiriak beste izapideak egiteko balio dute.

Atzerritarrek uneoro jakin behar du zein den baimenaren iraungitze-data eta berau berritzea.

Baimena honako kasuetan berrituko da:

- Berritu nahi den baimenaren emateari bidea eman zion lan-harreenaren jarraipena baieztatzen denean.
- Urteko sei hilabetez kotizatu egin dela frogatzen denean, kontratu berria sinatu denean edo lan-eskaintza denean.
- Sei hilabete baino gutxiago eta urtean hiru hilabetetan lan egin bada, baldin eta kontratua langilearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik eten bada, eta ondoren langilea lan bila aritu bada (INEMen, Langaien, eta abarretan izena emanda izatea) eta indarreko kontratua baduela berritze-eskaera egiteko garaian.

- Berritze-eskaera garaian langabezian aurkitzen bada langabezia-prestazioa kobratuz, prestazioak dirauen arte emango zaio baimena.
- Txertatze sozialera zuzenduriko asistentzia-prestazio ekonomiko publiko baten onuraduna bada, Oinarrizko Errentarena kasu. Prestazioaren iraunaldi bera izango du emango zaion baimenak, normalean epea urte batekoa izaten da baldintzek dirauten badute.

Berritzeko behar den dokumentazioa honakoa da:

- Eskaera-orria.
- Indarreko pasaporte osoa.
- Agiri tamainako hiru argazki.
- Lan-jarraipenaren akreditazioa: indarreko lan-kontratua, kontratu berria, bi nomina, errenta-aitorpena.
- Errolda-agiria.
- Bizitza laboralaren agiria.
- Langabezian bada, kobratzen duena eta zenbat denboraz kobratuko duen baieztatzen dituzten INEMen agiriak.
- Oinarrizko Errentaren onuraduna bada, egoera hau frogatzen duen agiria, zenbat kobratzen duen eta zenbat denboraz.
- Langilea autonomoa bada: Gizarte Segurantzaren kotizazioak ordaindu dituela baieztatzen duen agiria, eta Ogasunarekin diren betekizunak ere bete dituela.

Gerta daiteke etorkina era erregularrean aritu izana, baina ugazabak Gizarte Segurantzari ez kotizatzea. Kasu honetan, Lan Ikuskaritzan kotizatze behararen ez betetzeagatik egindako salaketaren kopia eman beharko da. Komenigarri da arrazoiak argitzen dituen eskutitz batekin uztea.

3.8. Baimenen aldaketa

Txartel jakin bat izanda ere (besteen konturako lan-baimena, ikasle), baimenaren iraunaldian atzeritarraren egoera pertsonalean aldaketak eman daitezke; hau dela bide, araudiak hainbat aldaketa egiteko prozedura zehazten ditu:

A. Ikasketarako egonaldi egoeratik, erresidentzia eta lan egoerara

Ikasketak egiteko bisa batekin etorri den ikasleak ikasketak amaitzerakoan lan-eskaintza jasotzen badu, lan-baimena eskatzeko bere herrira itzuli beharko da lan-bisaren izapideak egiteko (ikasle-bisa ez da erresidentzia-bisa bihurtzen).

Hala ere legeak salbuespen bat kontutan hartzen du, ikasleak lan-jarduerak egiteko baimenduak izan daitezke ikasketak eta lana bateragarriak direnean (denboraldi partzialeko lana edo egun osoko lanaldiko lanak klaseekin bat egiten ez badu eta honen iraunaldia hiru hilabete baino gehiago inoiz ez denean) eta diru-sarrerek Estatu espainolean bizitzeko iturri osagarria osatzen dutenean baina ezinbestekoak ez direnean.

Lan egiteko baimena eskatu behar da, eta honetarako enplegatzaileak eskaera aurkeztu behar du lan-kontratuarekin batera. Enpleguaren egoera nazionala ez da kontutan izango; baimenaren iraunaldia, lan-kontratuaren iraunaldiarena izango da eta ezingo da izan ikasle-bisaren iraunaldia baino luzeago.

Ikasleek ezin dute langabezia-bulegoetan izenik eman.

Ikasleei egiten zaizkien kontratuek ez dute langabeziarik kotizatzen, beraz, kontratua amaitzean ez da langabezia-saririk izango.

Ikasle egoeratik erresidentzia eta lan egoerara zuzenean pasatzeko betebeharrak honakoak dira:

- Estatu espainolean hiru urte gutxienez izatea ikasle-txartelarekin.
- Ikasketak edo ikertze-lana ongi gainditzea.
- Etorburuko herriarekin elkarkidetzatza edo garapenerako programen barruan erakunde publiko edo pribatuen beka edo diru-laguntzarik jaso ez izatea.

Eskaera hau enplegatzaileak egin behar du eta betekizunak baimen berri batenak dira. Sopustu honetan ez da enpleguaren egoera nazionala kontutan hartuko.

Eskaera-txartelaren iraungitze-dataren aurreko hiru hilabetetan egin beharko da.

Azkenik, erregimen berezi bat dago Estatu espainolean medikuntza eta kirurgia, farmazia, psikologia, zientzia kimikoak eta zientzia biologikoan lizentziatuen espezializazio-ikasketak egiten dituztenentzako. Espezializazioarekin loturiko jardueretan lan egin dezakete. Kasu honetan ez dute lan-baimen berezirik atera behar.

B. Erresidentzia-egoeratik besteen edo norberaren konturako lan eta erresidentzia egoerara

Erresidentzia-baimen baten titularrak erresidentzia eta besteen konturako edo norberaren konturako lan-baimena izan dezakete enplegu-eskaintza badu. Lan egiteko baimena eskatzeko ez da honen izapidea INEMen egin behar ezta penalak kontutan hartuko.

Langilea Gizarte Segurantzari afiliatu behar da eta baimena ematen den hila-betearen buruan kotizatzen hasi beharko du.

Berriz elkartze familiarraz erresidentzia lortu dutenen edo erresidentzia independente-baimena lortzen duten ezkontideen kasuetan, hauei ez zaie exijitzen urte bateko erresidentzia legala izatea.

B.1. Hiritar komunitario edo komunitario baten senide egoeratik erresidentzia eta lan egoerara

Komunitario edo komunitario baten senide izateagatik erresidentzia-baimenaren titularrek aipaturiko egoeraren aldaketa badute, dibortzioa kasu, besteen edo norberaren konturako lan eta erresidentzia-baimena lor dezakete. Baimen honen iraunaldia erregimen komunitarioan zuen beste txartelaren baitakoa izango da.

B.2. Besteen edo norberaren konturako lan eta erresidentzia-egoeraren arteko bateragarritasuna

Bi jarduerak aldi batera egin ahal izateko dagokien baimena lortu behar da.

Kasu bakoitzean betekizun nagusiak bete beharko dira eta bateragarriak direla frogatu.

Bigarren baimenaren iraunaldia txartel oinarriarena izango da, enplegu-eskaintza iraunaldi txikiagorik ezean.

B.3. Salbuespen arrazoen bidezko erresidentzia egoeratik besteen konturako lan eta erresidentzia egoerara

Salbuespen arrazoen bidezko erresidentzia-baimenaren titularrak erresidentzia eta lan-baimena eska dezake urte bat legalki bizi izan bada.

Lan-baimena bazuen (finkatzeaz adibidez) besteen konturako lan eta erresidentzia-baimena berritzeko betekizunak bete beharko ditu.

Lanerako baimenik ez badu, eskaera enplegatzaileak egin beharko du eta enplegurako egoera nazionala ez da kontutan hartuko. Gizarte Segurantzari altan eta kotizatzen ari dela baieztatu beharko du.

C. Erresidentzia eta lan-baimenen aldaketa

Hasera batean ematen diren erresidentzia eta lan-baimenak muga geografikoak, jarduerarenak edo besteen edo norberaren konturako lanerako mugak izan ditzakete.

Baimenaren iraunaldian langileak zonalde geografiko edo jardueraren aldaketa eska dezake (enpleguaren egoera nazionala kontutan hartuko da).

Besteen konturako lan-baimenetik norberaren konturako lan-baimenera pasatzeko, edo alderantziz, txartela berritu arte itxaron beharko da (berritze-eskaerarekin batera egin daiteke).

C.1. Besteen konturako lanetik norberaren konturako lanera

Kotizazio-denboraldia eta Gizarte Segurantza altan izatearen neurrian besten konturako lan-baimena berritzeko exijitzen diren betekizunekin bete behar da. Jarduera-proiektua aurkeztu behar da y norberaren konturako lanarentzako exijitzen diren betekizunekin bete behar da.

C.2. Norberaren konturako lanetik besteen konturako lanera

Gizarte Segurantzari kotizatu zaiola eta betebeharrak fiskalekin bete egin dela frogatu behar da. Lan-kontratua ere eman behar da.

3.9. Egoiliar komunitarioak eta senideak

Atzerritartasun Legeak ez du arautzen hiritar komunitario eta hauen senideen egoera. Europar Batasuneko Estatu bateko hiritarrek Estatu espainolean bizitzeko eta lan egiteko eskubidea dute, Estatu espainoleko hiritar batek duen bezala.

Estatu espainolean hiru hilabete baino gehiago bizi nahi duten hiritar komunitarioek Atzerritarrentzako Erregistro Zentralean izena beraiek zuzenean eman behar dute. Aipaturiko eskaera, Estatu espainolean sartu zen egunetik hiru hilabeteren buruan egin behar du; izena ematen duen unean erregistro-ziurtagiria emango zaio; bertan, izen-abizenak, nazionalitatea, erregistratzen denaren helbidea, Atzerritar Nortasun Agiriaren zenbakia eta erregistro-data agertuko dira.

Honako dokumentuak aurkeztu egin behar dira:

- Etorburuko herriko nortasun-agiria edo bere ordezkari pasaportea.
- Ziurtagiriaren izapideengatik ordaindu beharreko tasaren egiaztagiria.

Komunitarioen senideek Europar Batasuneko hiritarraren senidearen erresidentzia-txartela eskatu behar dute. Honetarako, komunitarioen senidetzat honakoak hartzen dira:

- Ezkontidea, baldin eta ezkontza-lotura, dibortzioa edo banaketa legalaren deuseztapena edo akordioa gauzatu ez bada.
- Ezkontideen egoerarekiko parekide den batasuna mantentzen duena. Batasun hau, Europar Batasuneko herri bateko edo Europar Eremu Ekonomikoko herriren bateko honetarako ezarritako erregistro publiko batean erregistratuta egon behar du, Estatu horrek aldi bereko bi erregistrorako aukera eragotzi behar duelarik. Ezkontza-egoera eta bikote erregistratua bezalako inskripzioa kontrajarriztat hartuko dira. Egun, Estatu espainolean ez dago erregistro bat bera ere balioduna denik.
- Ondorengo zuzenak eta bere ezkontide edo bikotearenak, baldin eta ezkontza-lotura, dibortzioa edo banaketa legalaren deuseztapena edo akordioa ez bada gauzatu, edo bikotearen erregistro-inskripzioa deuseztatu ez bada,

bere kargura ukan eta hogeita bat urte baino gutxiago dituztenak edo ezinduak.

- Bere asabak eta bere bikote erregistratuaren kargura daudenak, baldin eta ezkontza-lotura, dibortzioa edo banaketa legalaren deuseztapena edo akordioa ez bada gauzatu, edo bikotearen erregistro-inkripzioa deuseztatu ez bada.

Komunitarioen senidearen txartelak bost urteko indarraldia dauka, eta bere kargura diren hogeita bat urte baino gehiagoko ondorengoak eta asabak izan ezik, txartelak edozein jarduera egiten uzten du, bai besten konturako lan bai norberaren konturako lana, baita ere zerbitzu edo ikasketa-prestazioak espainiarrak bezala.

Txartelaren izapideetarako dokumentazioak:

- Eskuera-orri ofiziala (hiru kopia).
- Indarreko pasaporteak; pasaporteak balioa galdu badu, pasaportearen eta berritze-eskaeraren kopiak.
- Lotura familiarraren egiaztagiria (behar bezala itzulita eta apostilatuta edo legeztatuta), baita ere ezkontzaren baliagarritasunarena; edo bikote bezala erregistratzeko bikoteen erregistrorako ardura duen organoaren ziurtagiria, ziurtagiri honek eskaera aurkezten den hiru hilabete lehenagoko data izan behar du.
- Laguntzen duen edo elkartuko den hiritar komunitarioaren erregistro-ziurtagiria, eta honekin batera honen indarreko pasaporteak. Hiritar espainiar batengan sorburua den eskubidearen kasuan: NAN edo bere nortasun-datuak elektronikoki baieztatzeko baimena.
- 21 urte baino gehiagoko edo asaba zuzenen kasuan: honen baliabideak eskusiboki edo neurri handi batean, eta ezinbestean, bere asaba edo ondorengoarenak direla frogatzen duen edozein eratako ziurtagiria.
- Atera berriko agiri tamainako kolorezko hiru argazki, argazkiek fondo zuria dutelarik.
- Ziurtagiriaren izapideak egiteagatik ordaindu beharreko tasak ordaindu direla baieztatzen duen agiria.

3.10. Behin betiko erresidentzia

Estatu espainolean bost urte legalki bizi ondoren atzerritar batek lortzen duen baimenari behin betiko erresidentzia deitzen zaio. Ematen den baimen gorenena da, mugarik gabe lurralde osoan bizi eta besteen konturako zein norberaren konturako lan egiteko.

Bost urteko erresidentzia-konputurako baimenak, lan edo erresidentziakoak behar dute izan (ikasle, turista eta asilo eskatzaileenak ez dute balio).

Behin betiko erresidentzia-baimenari dagokion txartela epe legeletan berritua beharko da.

Jarraipena ez da kolokan jartzen baldin eta sei hilabete baino luzeagoko denboraldiak badira eta kanpoan izateen denboren batuketak urte bat baino luzeagoak ez direnean.

Elkarren segidako bost urteko baimena izan dutenez gain, honako pertsonok ere behin betiko erresidentziarako baimenerako eskubidea dute:

- a. Kotizaziopeko erretiro-pentsioaren onuradunak.
- b. Gizarte Segurantzaren sistemaren barruan den kotizaziopeko ezintasun iraunkor absolutu pentsio baten onuradunak, edo bizirauteko nahikoa den biziarteko-pentsio ez-kapitalizagarri bat dutenak.
- c. Estatu espainolean jaio eta 18 urte betetzean eskaera egin aurretiko hiru urtetan Estatu espainolean legalki bizi izan direnak.
- d. Jaiotzez espainiarrak direnak baina nazionalitate espainiarra galdu dutenak.
- e. 18 urtera heltzean, aurreko hiru urteak erakunde publiko baten babespean izan direnak.
- f. Aberrigabe eta errefuxiatu politikoen izaera hau aitortu zaienei.
- g. Estatu espainolaren aurrerapen zientifiko, ekonomiko edo kulturalari baliozko ekarpenak egin dizkietenak, baita ere Estatu espainolaren irudiari kanpoan.

Legegileek sopustu hauek plazaratzen dituzte eskuzabaltasunaren froga gisa, baina errealitatea oso bestelakoa da. Kotizaziopeko erretiro batera heltzeko, gutxieneko gabealdia bost urtekoa da. Beraz, bost urte baino gehiagoko bizileku legala izan beharko du izan. Beste hainbeste gertatzen da baliaezintasunarekin (denboraldi baterako etekinak eman daitezke, lan-istripuetan ondoriozkoa denean). Estatu espainolean jaiotakoak nazionalitatea behin betiko erresidentzia baino errazago lortzen dute.

3.11. Nazionalitatea

Nazionalitate espainiarra lortzen duen atzerritar batek espainiar ororen eskubideak eta betebeharrak bereganatzen ditu, botorako eskubidea barne. Honetarako, denboraldi jakin batez bizi behar da Estatu espainolean era erregular batean; eta epe hau betetzen denean Justizia Ministerioan nazionalitatea eskatzerik dago. Izapidea honako hau da:

- Bere denbora eskatzen duen izapidea da (urte eta erdi batetik lau urte artean). Justizia Ministerioak erantzuten duen arte erresidentzia-baimena berritzen joan behar da.
- Komeni da izapidean aurkeztu behar diren etorburuko herriko dokumentuak legeztatuak edo Hagako Apostilarekin izatea.
- Hego Amerika, Andorra, Filipinak, Ekuatore Guinea, Portugaleko hiritarrek eta sefardiek nazionalitate bikoitzerako aukera dute, beraiena eta espainiarra hain zuzen. Beste herrietako pertsonak, aldiz, nazionalitate espainiarra lortzen badute beraiena galtzen dute, teorian behintzat.
- Nazionalitatea eskatu ahal izateko behar diren urteak erresidentzia legalekoak izan behar dira, denboran jarraituak eta eskaera egin aurretikoak.
- Erresidentziaren bidezko nazionalitatea lortzeko bide honetaz gain, presuntzioaz lor daiteke nazionalitatea, hau da, Estatu espainolean jaio den bat baina gurasoak atzerritarak dituena, eta gurasoen etorburuko herriak ez duena nazionalizat jotzen seme-alaba hori, hau da hain zuzen Hego Amerikako herri gehienekin suertatzen dena.

Izapide honetarako honako urratsak eman behar dira:

- a. Estatu espainolean etorburuko herriak duen kontsulatura jo hemen jaio den seme-alaba hori ez dela etorburuko herrikoa adierazten duen agiriaren bila (inskripzio ez-konsularen agiria).
- b. Erregistro Zibilera jo jaiotza-inskripzioarekin eta aipaturiko agiriarekin nazionalitate espainiarra eskatu.

Nazionalitatea (erresidentzia legala) eskatu ahal izateko bete behar diren epeak honakoak dira:

1 Urte bat:

- a. Estatu espainolean jaiotakoak.
- b. Espainiar batekin ezkonduak.
- c. Espainiar baten tutoretza, zaintza edo babespean daudenak, berau bukatu eta ondorengo bi urtetan ere.
- d. Espainiar baten alargunak, ezkontidearen heriotzaren unean ez badago legalki edo izatez bananduta.
- e. Estatu espainoletik at jaiotakoak, honen gurasoak edo aitona-amonak espainiarrak direnean.

Bi urte:

Hego amerikarrak, andorrotarrak, filipinarrak, ekuatore ginearrak, portugaldarrak eta sefardiak.

Bost urte:

Asilotuak eta errefuxiatu politikoak. Kasu honetan, epea, asilo-eskaera egin zen egunetik hasten da kontatzen.

Hamar urte (arau orokorra):

Aipaturiko egoeretan ez den edozein atzerritar edo aipaturiko herrietako nazionalitatea ez duena.

- Argitaratu berri den Erregistro eta Notariotzarako Zuzendaritza Nagusiaren Instrukzio baten bidez, eskaera honen azken izapidea Erregistro Zibilean bertan egitea usten da, jaiotza-agiri espainiarra lortzearen izapidea hain zuzen ere. Honetarako, aldeko erabakia jaso ondoren espresuki eskatzea ezinbestekoa da, zin edo promeserako hitzordua eskatzen denean.

Behar den dokumentazioa honako hau da:

- Justizia Ministerioari zuzendutako nazionalitate-eskaera idatzia.
- Jaiotza-agiri literala (legeztatua).
- Etorburuko herriko aurrekari penalen agiria.
- Estatu espainolean egindako aurrekari penalen agiria. Honetarako inprimakia estankoetan saltzen da eta bete ondoren Madrilgo Zigortu eta Asaldarien Erregistro Zentralera igorri behar da, edo Bilboko Gobernuaren Ordezkaritzan lor daiteke inprimakia. Hiru hilabeteko iraungitze-epea du, beraz, hobe azken momentuan eskatzea.
- Estatu espainolean legalki bizitzen eman den denbora kreditatzen duen agiria.
- Etorburuko nazionalitatea mantentzen duen agiria; agiri hau, Estatu espainolean etorburuko herriak duen kotsulatuan lortzen da.
- Indarreko erresidentzia-txartelaren kopia.
- Pasaportearen kopia osoa.
- Errolda-agiria.
- Nazionalitate-eskaera espainiar batekin ezkondata izatean badatza: Estatu espainoleko erregistro zibilak emandako ezkontza-agiria eta ezkontide espainiarraren jaiotza-agiri literala.

Nazionalitatea lortzen lagunduko dituzten agiri guztiak eramatea komenigarria da (lan-bizitzaren txostena, lan-kontratu, nominak, jabetza-eskriurak edo etxebizitzaren alokairuaren kontratua, egindako ikastaroen agiriak, diplomak, eta abar).

Behar bada Erregistro Zibilak beste agiri batzuk eskatuko ditu, epaileak horrela uste badu.

Tasak:

Administrazio-baimenek eta egiten diren dokumentu desberdinen tasak ordaindu behar dira. Ondoren tasa ohikoenak aipatuko ditugu eta hauen gutxi gorabeherako prezioak; zehaztapenak jakiteko Barne Ministerioaren webgunera jo (www.mir.es):

- Estatu espainolean sartzeko bisak.
- Egonaldia luzatzeko baimenak (16 €).
- Erresidentzia-baimena (10-35 €).
- Lan-baimena.
- Txartelak egitea (10-20 €).
- Gonbidapen-eskutitza (95 €).
- Dokumenturik gabekoen nortasun-agiria.

Besteen konturako lan-baimenaren tasak ugazabak ordaindu behar ditu; praktikan eta indar-egoeraz baliaturik, tasak langileek ordaintzen dituzte nahiz eta hau ilegala izan.

Tasa hauek soldaten araberako bi eskala dituzte:

- Ordainsaria Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren bikoitza baino txikiago bada: 2008an 182 €.
- Ordainsaria Lanbideen arteko Gutxieneko Soldataren bikoitza baino handiago bada: 2008an 364 €.

4. Arau-haustea eta zigorrak

Arau-hauste eta zigorren erregimena oso garrantzitsua da atzeritartasunari dagokionean. Hau baieztatzeko Atzeritartasun Lege eta Araudiaren artikuluen laurdenak aspektu hauek jorratzen dituztela ikustea baino ez dago.

Erregimen honek zigor larriak ezartzen ditu, bai ekonomikoak bai beste eratakoak, denboraldi baterako askatasun-gabetzea barne.

4.1. Arau-haustek

Arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke arau-haustek.

4.1.1. Arau-hauste arinak

- a. Agintaritza espainiarrei nazionalitatearen aldaketa, egoera zibila edo helbidearen aldaketaren berri ez ematea edo atzerapenaz egitea, baita ere araudia aplikagarriaz eska diezaioketen bere lan-egoerari buruzkoarekin loturiko datuen ez ematea edo atzerapenaz egitea.
- b. Baimenen berritze-eskaeretan hiru hilabete arteko atzerapenarengatik, baimen hauen epea amaitu denean.
- c. Behin-behineko erresidentzia-baimena izanda, norberaren konturako lan egiteko baimen administratiboa eskatu gabe Estatu espainolean lanean aritzeagatik.

4.1.2. Arau-hauste larriak

- a. Estatu espainolean era irregularrean izateagatik: egonaldiaren luzapena ez lortzeagatik, erresidentzia-baimena ez izateagatik edo aipaturiko baimenaren iraungitze-datatik hiru hilabetez beteta izateagatik eta ohikoena dena, berritzeko diren epetan baimenaren berritzea ez eskatzeagatik.
- b. Baliozko erresidentzia-baimenik gabe izanda, lan egiteko aurretiko lan-baimenik gabe Estatu espainolean lanean aritzeagatik.
- c. Nazionalitateari, egoera zibila edo helbideari dagokion Barne Ministerioari eza-gutarazteko betebeharraren engainuzko ezkutatze edo gezur larria egiteagatik.
- d. Segurtasun publikoa dela bide, lege honetan ezarrita dagoenaren arabera aldizka aurkeztu beharra edo muga eta hirigunetatik urrun izateko ezarritako neurriak hausteagatik.
- e. Hirugarren arau-hauste bat egiteagatik, baldin eta aurreko urtean arrazoi berberagatik bi arau-hauste arin egin baditu.
- f. Herritarren Segurtasunaren Babeserako otsailaren 21eko 1/1992ko Lege organikoak larrizat hartzen dituen ordenu publikoaren aurkako jardueretan atzerritarrak parte-hartzeagatik.
- g. Estatu espainoletik ateratzea horretarako antolatuta ez dauden tokiren batetik eta honetarako behar den dokumentazioa aurkeztu gabe egiteagatik edo legalki ezarritako debekuak haustegatik.

4.1.3. Arau-hauste oso larriak

- a. Estatuaren kanpo-segurtasunaren kontra edo beste herriekin Estatu espainolak dituen harremanak kaltetuko dituzten jardueretan aritzeagatik edo

Herritarren Segurtasunaren Babeserako otsailaren 21eko 1/1992ko Lege organikoak larritzat hartzen dituen ordenu publikoaren aurkako jardueretan izateagatik.

- b. Pertsonen iragaitzako immigrazio klandestinoak edo Estatu espainola helburuarekin edo bertan geratzeko asmoz indibidualki edo erakunde baten partaide bezala aritzeagatik, beti ere egitateak deliturik ez dakarrenean.
- c. Arraza, etnia, nazio edo erlijioaren bidezko diskriminazio-jokamoldeak burutzeagatik, baldin eta egitateak deliturik ez dakarrenean.
- d. Langile atzerritarrak kontratatzeagatik aurrez dagokion lan-baimena lortu gabe, arau-haustean eroriz kontratatutako atzerritar bakoitzarengatik.
- e. Hirugarren arau-hauste larri bat egiteagatik, baldin eta aurreko urtearen buruan izaera bereko bi arau-hauste larriengatik zigortua izan denean.

Honako hauek ere arau-hauste larriak dira:

- a. Garraiolarietzat 66. artikuluko 1. eta 2. ataletan aurreikusten diren bete-beharren haustea.
- b. Estatu espainoleraino airez, itsasoz edo lurrez atzerritarrak garraiatzeagatik hauen pasaporteak, bidaia-tituluak edo beharrezkoak diren nortasun-agirien baliotasuna eta iraunaldia konprobatu gabe.
- c. Lehenago aipaturiko dokumentazio-gabeziengatik Estatu espainolean sartzea debekatu zaien atzerritarren kargu egiteko erantzukizunari denbora galdu gabe garraiolariak duten betebeharrari uko egiteagatik, baita ere helmugako herrira eramana izan ez den eta iragaitzan diren atzerritarrena edo helmugako herrialdeko agintariak atzera bota duten atzerritarren kargu ez egiteagatik.

4.2. Zigorrak

Zigorrak jartzea Gobernuaren Ordezkaritzaren eskuduntza da. Kasu batzuetan, norberaren konturako lan egiteko baimen administratiborik gabe lan egiteagatik kasu, edo erresidentzia-baimenik gabe denean lan-baimenik gabe lan egiteagatik, edo lan-baimena izan gabe langile atzerritarrak kontratatzeagatik. Zigor-prozedurari Lan eta Gizarte Segurtasunaren Ikuskaritzaren akta batekin hasiko zaio.

Arau-hausteak eta zigorrak honako eraz preskribatzen dira:

- Arau-hausten preskribatzea: arinak, sei hilabete; larriak, bi urte; oso larriak, hiru urte.
- Zigorren preskribatzea: arinak, urte bat; larriak, bi urte; oso larriak, bost urte.

4.2.1. Isunak

- Arau-hauste arinak: 300 € arteko isuna.
- Arau-hauste larriak: 301 €tik 6.000 € bitarte.
- Arau-hauste oso larriak: 6.001 €tik 60.000 € bitarte.

4.2.2. Kanporatzea

Atzerritarrek arau-hausleak izan eta hauek oso larritzat tipifikatuta daudenean atzerritarrei zigor ekonomikoak ezarri ordez Estatu espainoletik kanporatuak izan daitezke, beti ere administrazio-espeditarearen izapideak egin ostean.

Zigorrek eta kanporatzeak ezin dira batera ezarri.

Kanporatzeak, Estatu espainolean egoteko kanporatutako atzerritarrek izan zeza-keen edozein baimenen iraugipena dakar berarekin zein erresidentzia-baimenen edozein eskaeraren artxibatzea.

Honako pertsonen ezingo zaie kanporatze-zigorrik ezarri:

- Estatu espainolean jaio eta azken bost urtetan bertan legalki bizi izan direnak.
- Behin betiko erresidentzia-baimena dutenak.
- Jaiotzez espainiarrak izan eta nazionalitate espainiarra galdu dutenak.
- Estatu espainolean suertaturiko lan-istripu edo gaixotasun profesionala dela bide, behin betiko ezintasun-pentsioa dutenak.
- Kotizaziopeko langabezia-saria jasotzen ari direnak.
- Lan-txertaketa lortzeko helburuarekin asistentziagatik sari publikorik jasotzen ari direnak (Oinarrizko Errenta).
- Aipaturiko egoeretan izan eta Estatu espainolean legalki bi urte baino gehiagoz bizi izan diren atzerritarren ezkontideak, asabak eta adin txikiko seme-alabak edo atzerritarren kargu diren ezinduak, ezta ere haurdun daudenak, neurriak ernaldirako edo amarentzat kalte ekar dezakeenean.

Baina arau-haustea Estatuaren kanpo-segurtasunaren kontra edo ordenu publikoaren aurka aritzeagatik denean, edo arau-hauste berriro egiteagatik bada, atzerritarra kanporatua izango da.

Kanporaketak Estatu espainolean sartzeko debekua dakar, debeku honek hiru urtetik hamar urtera bitarteko iraugipena izango du.

4.2.2.1. Egoera irregularrean direnen kanporatzea

Kanporatze-zigor eta isunaren arteko hautatzeari dagokionean Epaitegi Gorenak honako dotrina ezarri du:

Espedienteari hasiera emateko arrazoia atzerritarraren egonaldi irregularra denean, isuna izango da ezarriko zaion zigorra.

Kanporatze-zigorra arrazoitua izango da, egonaldi irregularraren arrazoi hutsetik haraindi.

Poliziak egoera irregularrean den pertsona atxilotzeari ekingo dio. Komisariara eramango dute atxilotu bezala. Beraz, atxilotuen honako eskubideak izango ditu:

1. Itzultzailerako eskubidea, gaztelera ez badu ulertzen ezta hitz egiten.
2. Asistentzia sanitarioarako eskubidea, larrialdi sanitariorik behar izanez gero. Hau oso garrantzitsua da atxiloketa garaian ustezko lesiorik eman diren kasuetarako. Funtsezkoa da parte medikua eskatzea.

Komenigarri da:

- Atxilotuaren abokatuaren telefonoa eskatzea komenigarri da. Ematera behartuta dago. Abokatuak, 48 orduren buruan, kanporatzearen aurkako alegazio-idazkia aurkeztu behar du herrialdeko Polizia Nazionalaren Atzerritartasun Brigadan. Alegazio-idazkia prestatzeko baliagarri izan daitekeen edozein dokumentazio ekar daiteke.
- Sei hilabeteren buruan kanporatzeko behin betiko erabakia ez bada eman, ofiziozko abokatuari esan diezaiokegu kanporatzea eman zuen Gobernu Ordezkaritzan kanporatzearen iraugitzea eska dezala.
- Azkenean, kanporatzearen behin betiko erabakia ematen bada, administrazioaren aurrean hilabete baten buruan birjartze-errekurtsioa aurkezteko eskubidea dago, edo bi hilabeteren buruan administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzekoarena. Azken errekurtsio honetarako abokatu behar da, beraz komenigarria da Abokatuen Elkargoan ofiziozko abokatu bat eskatzea.
- Atxilotzerakoan edo komisarian poliziek atxilotuari edozein eraso fisiko edo hitzezkoa eragin badiote, berau salatu egin behar da. Salaketa, Instrukzio Epaitegietan egitea gomendatzen da. Zauriak eragin badira, osasun-zentro batera jo behar da erasotua izan dela adieraziz eta horrela ager dadila parte medikuan. Parte hau salaketarekin batera aurkeztu behar da. Garrantzitsua da erasoen lekukoak ematea.

4.2.2.2. Auziperatutako atzerritarrak

Gobernu-agintaritzak epailetzari, hiru egunen buruan, arau-hauste edo delituzko prozedura judizialpean edo auziperatuta den atzerritarraren kanporatze-proposamena helaraziko dio; kanporatze-proposamena egingo da baldin eta arau-hauste edo delitu horietarako legeak aurreikusten duen zigorra sei urteko baino txikiagoko askatasunaz gabetzeko zigorra denean edo beste era batekoa, eta kanporatze-espeditentean jasota geratzen bada.

Epaileak erabaki dezake badirela arrazoiak kanporatze-neurriari ezezkoa emateko, besteak beste honakoak:

- Zigor askatasun-gabetzailea sei urtekoa baino txikiago bada, kartzela-zigorra kanporatze batengatik ordezkaturia izango da; baina fiskaltzaren aurretiko audientziaz, delituaren izaera kontutan harturik, epaileak edo epaitegiak erabakitzen badu zigorra kartzela batean betetzeko arrazoiak justifikatuta daudela.
- Zigor askatasun-gabetzailea sei urtekoa baino handiago bada, eta fiskaltzak horrela eskatuta, kanporatzea erabakiko dute hirugarren mailara heltzean edo zigorraren hiru laurdenak betetzean, baldin eta delituaren izaera kontutan harturik zigorra Estatu espainoleko kartzela batean bete behar duela ikusten badute.

Prozedura hauengatik kanporatutako atzerritarra ezingo da Estatu espainolera itzuli hamar urteren buruan.

2. ATALA. LAN-ESKUBIDEAK

5. Lan-eskubideak

5.1. Langile atzerritarren lan-eskubideei buruzko nozio nagusia

Immigrazioak lanarekin erabateko lotura du. Baldintza hobegoetan bizi ahal izateko lan duinaren bilaketa emigratzeko arrazoi nagusietako bat da, garrantzitsuenaz ez bada.

Lan-merkatura heltzea korapilatsua bada, etorkinen kasuan zailagoa egiten da, xenofogoia eta gizatasunik gabeko Atzerritartasun Legearen mende baitaude.

Egoera administratibo irregularrean egon eta lanean aritzea arau-hauste larritzat jotzen da, eta ondorioz zigortuak edo Estatu espainoletik kanporatuak izan daitezke.

Erresidentzia edo egonaldi-baimenarekin lanean ari diren atzerritarrak, baina lan-baimenik gabe, 300 euroekin zigortuak izan daitezke, Atzerritartasun Legearen arabera arau-hauste arina egiten ari direlako.

Bi kasu hauetan, enplegatzaileari ere isuna jar diezaiokete. Hala ere, Atzerritartasun Legearen 36.3 artikulua dio: *"enplegatzailearen baimen ezak, honegatik dago-kion erantzukizunari kalterik gabe, ez du lan-kontratua deuseztatuko, langile atzerritarrak dituen eskubideei dagokienean"*.

Hau da, lan-kontratuan biltzen diren lan-eskubide guztiak errespetatzen zaizkio (soldata, aparteko sariak, irazteak, eta abar), lan-baimena duen edozein langile bati bezala. Badira epai batzuk eskubide hau aitortzen dutenak.

Erresidentzia eta lan-baimena duten atzerritarrek soldatapeko jardura burutzeko eskubidea dute, baita ere Gizarte Segurantza sistemara heltzeko eta espainiarrek jasotzen dituzten sariak eta zerbitzuak baldintza berberetan jasotzeko.

Langileek dituzten eskubideak ezagutu behar dituzte. Ezagutza hau lantokietan ematen diren esplotazio-egoera eta gehiegikeriei aurre egiteko balio izango zaie.

5.2. Lan-kontratua

Ugazabak eta langileak lortzen duten akordioa da, zeinaren arabera ugazabaren kontura eta honen zuzendaritzapean, soldata edo sari baten truke, langileak hainbat zerbitzu eman behar dituen.

Lan-kontratua izateko 18 urte izan behar dira, nahiz eta 16 urte gorakoak ere kontratatuak izan daitezkeen, hauek independenteki bizi badira eta beraien ordezkari legalen berariazko onespena edo beraiekin biziz gero hauen baimena ematen badiete.

Honez gain, atzerritarrek lan egiteko baimena beharko dute (ikus 3. puntua: Erresidentzia eta lan-baimena).

Oro har, kontratuak idatziz egiten dira, honen kopietako bat langileari eman behar zaiolarik. Gomeni da kontratua ondo irakurtzea berau sinatu aurretik, batez ere honako puntuei dagokienean:

- Sinatzaileen nortasuna, bai langilearena bai ugazabarena.
- Lan-harremanaren hasiera-data eta harremanaren iraunaldia. Hasiera-data bat egin behar du lan egiten den lehen egunarekin eta Gizarte Segurantzako alta-datarekin.
- Enpresaren gizarte-helbidea eta lantegiarena ere.
- Lanpostuaren kategoria edo talde profesionala, egin beharreko lanarena alegia.
- Hasierako oinarrizko soldata, soldata-osagarriak eta ordaintzeko maiztasuna.
- Lanaldi eta oporren iraunaldia, eta hauen banaketa.
- Kontratuaren amaierako aurre-abisurako epeak.
- Lan-harremanaren hitzarmen kolektiboa. Erreferentzi hau ez agertzeak ez du esan nahi hitzarmenik ez duenik. Askotan 'ahazten da' indarrean den gutxieneko legala baino gutxiago emateko.

Garrantzitsua da kontutan hartzea kontratuan arautzen den guztia, zeren eta geroan errealitatearekin bat egiten ez duen zerbait izanez gero, berau salatu eta erreklamatu daitekeelako kontratuan agertzen denaren kalterik gabe.

- *Froga-denboraldia*

Froga-denboraldian lan-harremana parte bietako batek deusezta dezake inolako arrazoirik eman gabe ezta aurre-abisurik gabe, kontrakoa itaunduta ez badago bederen. Askotan, frogaldia ez gainditzearen aitzakia erabili ohi da 'deserosoak' edo eskubideen 'aldarrikatzaileak' erditik kentzeko eta lan-kontratua bera deuseztatzeko. Komenigarria da frogaldia gainditu arte itxarotea edozein erreklamazio egin aurretik.

Ez da beharrezko frogaldia itauntzea, baina egiten bada, kontratuan idatziz eman beharko da. Honen iraunaldia behin-behineko mugetara lotuta dago eta desberdinak dira lan esparru batekoak eta bestekoak, beraz, gomeni da aholkurik jasotzea.

Ezingo da frogaldirik ezarri langileak enpresan funtzio horiek lehendik eginak baditu, nahiz eta beste kontratuean eginak izan.

- *Lan-kontratua eta iruzurra kontratazioan*

Legediaren arabera kontratu desberdinak daude, bi multzotan bana daitezkeela:

- **Mugarik gabeko kontratuak.** Kontratuaren iraunaldiari dagokionean, zerbitzuak emateko denbora-mugarik gabe adosten dena, enpresa bateko jarduera produktiboaren behar iraunkorrak betetzea baitu helburu. Modalitate honen barruan **aldizkako kontratu-finkoa** aurkitzen dugu. Kontratu mota hau, enpresa baten ohiko jardueran, lan finko data zehatzetan zein ez zehatzetan egiten den lana egiteko erabili ohi dute, adibidez garaiko lanetan.
- **Aldi baterako kontratuak.** Enpresaren ohiko jardueran aldi baterako beharrak betetzea dute helburu, beste kasuetan erabili ez daitekeelarik. Kontratu hauen iruzurrezko erabilera zigortuta dago; iruzurrean harrapatuz gero mugarik gabeko kontratuak bihurtzen dira. Besteak beste honako hauek ditugu:
 - **Obra edo zerbitzu jakin baterako kontratua.** Enpresaren jardueraren barruan autonomiaz eta berezko substantibitateaz obra edo zerbitzu bat egiteko; zeinaren amaierak, denboran mugatu bada ere, iraunaldi ezezaguna duen. Obrak edo zerbitzuak behar duen denboraldi berekoa izango da kontratuaren iraunaldia, beraz, kontratua amaierako dataren finkatzea gutxi gorabeherakoa baino ezin da izan. Kontratu-eredu honen paradigma eraikuntzan aurkitzen dugu. Iruzurra ematen da zerbitzuak ematen dituen obra baterako kontratatua izaten denean edo zeregin horiek berezkoak eta iraunkorrak direnean. Kasu hauetan, enpresak kontratuarekin amaitzea erabakitzen duenean, esan dezakegu bidegabeko irazipen baten aurrean gaudela.
 - **Behin-behineko kontratua produkzioa dela bide.** Merkatuaren aldi baterako beharrei erantzutea du helburu, baita ere zeregin pilatzeari edo gehiegizko eskaerei, nahiz eta enpresaren ohiko jardueran ematen den. Denboran mugatuak dira, honek esan nahi du ezin dutela legeak diona baino iraunaldi luzeago izan, sei hilabete hain zuzen ere; edo hitzarmenak dionaz, zeinaren muga sektorearen baitakoa izango den. Iruzurra ematen da ezarritako denbora gaitzen denean, behin-behineko kontratu hori mugarik gabeko kontratu bihurtzen delarik.
 - **Bitarteko lan-kontratua.** Lanpostua gordetzeko eskubidea duen langilea ordezkatzeko erabiltzen dena da, bajaran dagoelako adibidez, edo lanpostu bat betetzeko lanpostu horren hautaketa-prozesua egiten den bitartean. Lehen kasuan, ordezkatua izan den langilea lanean berriro hasten den unean amaitzen da kontratua, denbora-mugarik ez dagoelarik; kontratua ere amai daiteke ordezkatuaren lan-harremana amaitu delako. Bigarren kasuan, hautaketa-prozesua ezingo da hiru hilabete baino luzeago izan.

Legediak horrela badio ere, enpresa-praktikak behin-behineko kontratuen erabileraz iruzurrezko praktika ohi da. Honen aurrean langileek bitarteko judizial eta estrajudizialek jotzeko aukera dute bere kontratua mugarik gabeko kontratutzat har dezaten.

- *Kontratu-amaiera*

Kontratua amai daiteke eta, ondorioz, bi parteek zeuzkaten betekizunekin behin betiko amaitu. Bukatzeko era desberdinak daude, baina parteen borondatearekin (parte batek horrela erabakita edo biek adostuta) lotuta daudenak eta borondate horrekin zerikusik ez duten arrazoiei erantzuten dizkietenak nabarmentzen ditugu.

Ohikoenen artean, azpimarratu behin-behineko kontratuaren epemuga edo arrazoien amaiera, aurreko paragrafoan kontratazioari iruzurrari buruzko ohartarazpenak kontutan izanda; baja boluntarioa eta arrazoi objektibo eta diziplinakoetan oinarrituriko erizpena.

Iraizpen guztiak idatziz egin behar dira, bertan arrazoiak eta iraiterako data adieraziko dira. Ahozko iraitzen kasuetan, lanera joaten jarraitzea gomendatzen da idatzizko iraitzena jaso arte bederen, aholkulari edo sindikatu batera lehenbailehen joatea gomendatzen delarik.

Iraizpena, berau ematen bada, bidezkoa, bidegabekoa edo baliogabea izan daiteke. Oinarritzko eskubideen aurkako iraitzena baliogabea da eta langilea berriz hartu beharra dakar, iraitzen egunetik berriz hartu den egun arteko soldata guztiak ordaindu behar dizkiolarik ugazabak langileari. Salatutako gertaerekin bat egiten ez duenean iraitzen bidegabekoa izango da eta bidezkoa bat egiten duenean. Dena den, gertatutakoaren inguruan zalantzak izanez gero, kalifikazio hau organo judizial batek egin beharko luke.

Kontratu-amaiera guztietan, ugazabak langileari dagokion azken kitatzea ordaindu behar dio. Azken kitatzea ez da kalte-ordain bat; azken hilabetean egindako lanegunak, urte horretan sorturiko aparteko pagen eta gozatu ez diren oporren zati proportzionalaren kitapena baizik, kontratu amaitu delako. Diru hauek beti jaso behar dira, dagokion kalte-ordainaren kalterik gabe, horrela badagokio behintzat.

Kontutan hartu behar da langilearen lan-harremanarekin jarraitzeari uko egiteak, bai aldebakarrean bai ugazabarekin adostu ondoren, ez duela langabeziarako eskubiderik ematen, baldin eta borondate hori garbi eta argi adierazten den.

5.3. Soldata

- Aurrez ezarritako kopuruan eta tokian ordaintzea.
- Soldataren ordainagiriaren edo nomina ematea. Inoiz ez da nominarik sinatu behar nominan agertzen dena eta kobratzen dena bat egiten ez badute edo kobratzen ez denean.

- Hilabeteko epeak baino luzeagoaz ez egitea.
- Egindako lanaren truke konturako aurrerakinak jasotzea.
- 2008ko gutxieneko soldata, hileko 600 eurokoa edo eguneko 20 eurokoa da.
- Orduka aritzen diren etxeko laguntzaileen gutxieneko soldata orduko 4,70 eurokoa da.
- Ezin da kopuru horietatik txikiago izango den soldatarik ordaindu. Hala ere, hitzarmen kolektibo batzuetan, legala den gutxieneko soldata baino handiagoak diren gutxieneko soldatak ezartzen dira. Lan bakoitzari dagokion hitzarmen kolektiboa begiratu behar da gutxieneko legala kobratzen den jakiteko.
- Estatu espainolean aparteko bi paga gutxienez ordaintzen dira, bata Gabonetan eta bestea hitzarmenaz edo langileen ordezkari eta ugazabaren akordioaz erabakitzen den hilabetean. Paga hauek hileroko proportzionalki bana daitezke, hau da, aparteko pagen zenbatekoa hilabetez zatitu eta banatu, hileroko ordainduz.

5.4. Lanaldia eta lan-egutegia

Indarrean den legediaren arabera, asteko gehieneko lanaldia 40 ordukoa da. Hitzarmen kolektibo askok asteko gehieneko lanaldia ordu-kopuru horretatik beherago zehazten dute.

Honez gain, eguneko gehieneko lanaldia 9 ordukoa da. Ordu-kopuru horietatik gora sartzen diren orduak aparteko ordutzat hartuko dira eta horren arabera ordainduak izango dira.

Aparteko orduak boluntarioak dira; langilea ezin da behartu aparteko ordurik sardezan. 18 urte baino gutxiago dutenek debekatuta dute aparteko ordurik sartzea.

Enpresa guztiek lan-egutegi bat izan behar dute. Lan-egutegi hau enpresa eta langileen arteko negoziazioaren emaitza izango da eta bertan urteko lanaldia banatuta ikus daiteke (lanegunak, jaiegunak, eta abar).

5.5. Oporrak eta atsedenaldiak

Oporraldia ezin da 30 egun baino gutxiagokoa izan. Oporrak bi hilabete lehenagoz eskatu behar dira eta enpresarekin adostu. Oporraldia zehazteko, hitzarmen kolektiboa edo enpresaren berezko akordioak kontutan hartu beharko dira. Komenigarri da urte hasieran finkatzea, lan-egutegia negoziatzen den garaian.

Oporrak, oro har, ezin dira ekonomikoki konpentsatu, eta urte naturalaren barruan hartu behar dira, horrela ez balitz oporrak galtzeko arriskua legoke. Urte bat baino gutxiago lan egiten bada, oporren parte proportzionalaz gozatzeko eskubidea izaten da edo ordainduak badira, lan egindako hilabete bakoitzarengatik oporretako bi

egun eta erdiz konpentsatu behar da (hau gertatzen da kontratua amaitzen denean oporrak disfrutatu gabe).

Asteko atsedena, egun eta erdikoa da, eta lanaldien arteko atsedena 12 ordukoa izan behar du gutxienez.

Urtean 14 jaiegun daude, egun horietan ezin da lanik egin. Jaiegun hauek ezingo balira gozatu, atsedenaldirako egun libre alternatiborako edo egun horiek kobratzeko eskubidea du langileak.

5.6. Lan-istripuen prebentzioa

Jarduera honek lan-baldintzen hobekuntza suspertzea du helburu, langileen osasunaren babes-maila eta segurtasuna areagotzeko.

Arriskuen prebentzioak, ugazaba eta langileentzako eskubideak eta beharrak dakartza.

- Ugazabaren betebeharrak: bere mende diren langileen osasuna eta segurtasuna bermatzea, hauen lanarekin zerikusirik duten esparru guztietan.
- Langilearen eskubideak: babes eraginkorra bere lanean. Honetarako:
 - Osasun eta segurtasunerako arriskuen informazio zuzena izan behar du, baita ere prebentzio neurriena, eta larrialdietarako egoerei aurre egiteko aurreikusita dauden neurriena ere.
 - Kontratua denean eta eginbeharreko zereginaz aldatzen denean, nahikoa eta egokia izango den informazio teoriko eta praktikoa jasotzea.
 - Lanpostua uztea burutzen ari den jarduerak bere bizitza edo osasuna arriskuan jartzen duela usten duenean.
 - Bere osasunaren aldikako zaintza, bere lanpostuari datxekion arriskuen araberako maiztasunaz.
 - Segurtasuna eta lan-osasunari dagokien gaietan parte-hartu eta kontsultatuak izatea. Ugazabari, parte-hartze eta ordezkari-organoei (prebentziorako delegatuak, Segurtasun eta Osasun Batzordea) proposamenak egiteko eskubidea ere badute.
- Langileen eginkizunak: euren eta euren lankideen segurtasuna eta osasuna zaintzea. Honetarako:
 - Ugazabak emandako makineria, tresnak, produktu toxikoak, ekipoak eta lanerako edozein tresna egoki erabiltzea.
 - Babes-tresnak egoki erabiltzea.

- Hierarkiako nagusi hurrenari eta enpresan prebentzioaz arduratzen direnei langileen segurtasuna eta osasuna arriskuan jar dezaken edozein egoerari buruzko informazioa helaraztea.
- Agintari eskudunak ezarritako betebeharrak betetzera laguntzea.
- Langileen segurtasuna eta osasuna arriskuan jarriko ez dituzten lan-baldintzak ezartzearen exigentzia egitea ugazabari.

5.7. Gizarte Segurantzza

Erresidentzia eta lan-baimena duten atzerritarrek soilik eskubide izango dute Gizarte Segurantzara heltzeko. Honek ematen die espainiarrek dituzten baldintza berberetan honako prestazioetara heltzeko eskubidea: bajak, amatasuna, aitasuna, ezintasun iraunkorra, erretiroa...

Hau horrela izanik, Estatu espainolean den edozein atzerritarrak osasun-asistentziarako eskubidea izango du baldin et errolatuta dagoen edo adinaz nagusi den.

- *Amatasuna*

A. Baja eta amatasun-prestazioa. Lan-baimena dutenek soilik izango dute prestazio hauetarako eskubidea. Legediaren arabera, aitzak ere, prestazio hauek aldi berean gozatzeko eskubidea izango du.

B. Iraizpena. Haurdun den emakume langile baten iraizpena baliogabea edo bidegabekotzat har daiteke. Hala ere, emakume langileak lan-baimenik ez balu izango, ezingo du lanera berriz itzultzea aukeratu, baina bai bidegabeko iraizpenaren kalte-ordaina erreklamatu.

- *Lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak*

Gertakizun horiengatik diren prestazioetarako eskubidea izaten da nahiz eta lan-baimenik ez izan ("beltzean" aritu eta lan-istripu edo gaixotasun profesionala berehalakoan gertatzen denean); eskubidea izango du baldin eta etorkinaren etorburuko herriak aspektu hori arautzen duen Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmen bera berretsi badu.

- *Gizarte Segurantzaren ordaindutakoaren araberako ez diren prestazioak*

Ordaindutakoaren araberako ez den baliazintasun kasuan, bost urteko erresidentzia legala Estatu espainolean frogatu behar da (pentsioa eskatzen den unearen aurreko bi urte).

Ordaindutakoaren araberako ez den erretiro kasuetan, 10 urteko erresidentzia legala baieztatu behar da (16 urtetatik pensioaren ordaintze-eguna arte, haue-tako bi urte pensioa eskatzen den unearen aurrekoak izango direlarik).

Seme-alaben kargurako esleipenetan, erresidentzia legala demostratu behar da.

5.8. Langabezia-prestazioak

Ordaindutakoaren araberako eta asistentziagatiko langabezia-prestazioetarako eskubide izango da; baldin eta kotizazio-baldintza nagusiak betetzen badira eta erresidentzia legal eta lan egiteko baimena badauzka.

Besteen konturako lanak langabeziarako eskubidea ematen du, baina norberaren konturako lanak edo etxeko langilearenak ez du eskubide hori ematen, langabeziarik ez baita kotizatu.

Bidegabeko irazpenetan, langabezia kotizatu duen langile atzerritarrak dagokion langabezia-prestazio kobratzeko eskubidea du, nahiz eta lan-baimena iraungi zaion.

Epaitegi Gorenaren jurisprudentziak aitortzen du seme-alaben kargurako langabezia-prestazioa kobratzeko eskubidea, nahiz eta seme-alabak etorburuko herrian egon.

Kontutan hartu behar da kotizatzen ez dituzten lan-baimenak daudela: mugaz haraindiko langileak, sasoiko lanak, ikasketa-egonaldiak.

5.9. Lan-demandak

Lan egiteko baimenena duten eta baimenik gabe diren atzerritarrentzako lan-demandaren prozedurak bi atal ditu:

- A. Adiskidetze-ekitaldia. Demanda egin aurretik egin beharreko izapidea da. Ez da abokaturik behar. Ekitaldian ez bada akordiorik ematen, ondoren Gizarte Epaitegian demanda aurkez daiteke.
- B. Demanda. Lan-demanda bat aurkezteko abokatu bat behar da. Atzerritarra Estatu espainolean legalki bizi bada eta ez badu gutxieneko diru-sarrerarik ofiziozko abokatua eska dezake.
- C. Epeak. Prozedura bati ekin aurretik epeak kontutan hartu behar ditugu. Epe garrantzitsuenak honakoak dira:
 - Irazpenak eta zigorrak: 20 egun baliiodun (asteburuak eta jaiegunak kenduta).
 - Diru-kopuru baten erreklamazioa: diru-kopuru hori ordaintzeko betebeharra ematen den unetik urte bat.

5.10. Gatazka kolektiboak eta greba

Langileek kolektiboki eta komunztatuta lan-prestazioaren uzteari greba deitzen diogu, euren interes profesional eta laboralak defendatzeko erabiltzen duten presio-egitatea da.

Atzerritartasunaren Legearen 11. artikulua eskubide hau lan egiteko baimena duten atzerritarrei soilik mugatzen die, baina eman berri diren epai batzuk konstituzioaren aurkakotzat jotzen dute aipaturiko artikulua.

5.11. Lan Ikuskaritza

Erakunde honen aurrean ugazaben lan-legediaren edozein urratzeari buruzko salaketak jar daitezke. Behar den kontraturik gabe lan egitearen ondoriozko salaketak sartzeko erakunde da.

Lan Ikuskaritzan egiten den salaketak garrantzi bizia du lan-finkatzearen bidezko behin-behineko erresidentzia-baimenei dagokienean.

5.12. Enplegu eta lan agentzietarako zerbitzu publikoetan langile atzerritarren izen-ematea

Nobedadeen artean (3698/2006 ordena) egonaldi edo erresidentzia-baimena ukan baina lan-baimenik gabeko atzerritarrek izena eman dezake herrialdeetako enplegu-zerbitzuetan. Egoera administratibo irregularrean direnek ere izena eman dezakete enplegu-zerbitzuetan, baina honetarako atzerritartasun bulegoak, sopusitu batzuen arabera, ziurtagiri bat ematen behar die.

6. Etxe-Zerbitzua

Etxe-zerbitzu edo etxeko langilearen erregimenak harreman berezia osatzen du eta arau berezi eta zehatzez zuzenduta dago. Arau hauek etxeko lanak (garbitasuna, sukaldea...) eskusiboki egiten dituen pertsona eta enplegatzailearen arteko akordioaz ematen dira, baldin eta enplegatzailea bizi den etxean egiten badira lan horiek eta horren truke soldata bat jasotzen bada.

Enplegatzaile eta langilearen artean harreman familiarra ematen bada ez da etxe-zerbitzuaren erregimen berezia ezarriko.

Sektore honek garrantzi handia du etorkin askok (emakumeak batez ere) bertan lan egiten baitute, era berean azpimarratzekoa da bertan ematen den irregularutasun-indize handia.

Egoera administratibo irregularrean den pertsona batek, Estatu espainolean lan eta bizitzeko baimena lortu duenaren lan-eskubide berberak ditu.

6.1. Lan-kontratua

- Lan-baimena lortzea ezinbestekoa da lan-harremanari ekiteko.
- Kontratua ahozkoa zein idatzia izan daiteke, hala ere hobe da idatzia izatea (bi parteek kontratu idatzia exiji dezakete, bai lan-harremanaren hasieran bai honen amaieran).
- Kontratu ahozkoa bada eta besterik ez bada itauntzen, kontratuak urte beteko iraunaldia izango du, 12 hilabeteko denboraldiaz automatikoki luzatuz.
- Probaldia 15 eguneko izango da.

6.2. Lanaldia

- Asteko gehieneko lanaldia 40 ordukoa da. Etxeko langileek astean 36 orduko atsedenaldirako eskubidea dute, hauetako 24 ordu elkarren segidakoak izango direlarik eta preferenteki igandearekin bat egin behar dute.
- Oporraldiak 30 egun izango ditu (lanegunak eta jaiegunak barne), hauetako 15 segidan gozatuko dira.
- Etxeko langilea etxeko lanak burutzen duen etxean bizi bada, jatordu nagusietarako bi ordu gutxienik izango ditu.
- Aurrez abisatzen badu honako baimenetarako eskubidea izango du: ezkontza, 15 egun; gertuko senideen istripu, gaixotasun larri edo heriotza, 2-4 egun; ohiko bizilekuaren aldaketa, egun bat; izaera publiko eta pertsonala duen nahitaezko betebeharrak (medikua, izapide administratiboak, eta abar) egiteko behar duen denbora.

6.3. Soldata

- Gutxieneko soldata Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarena izango da. 2008ko LaGS, hileko 600 €koa da (egunean 20 € eta urtean 7.800 €). Orduka lan egiten duenarentzat, orduko soldata, 4,69 €koa da.
- Soldatak murrizketak izan ditzake jenero-prestazioengatik (ostatu edo mantenua). Kitapena ezingo da guztizko soldataren %45a baino gehiago izan (2008an hilean ordaindu beharreko soldata 330 € baino handiago izango da).
- Langileak hiru urtetik behin, etxe berean arituz gero, eskudiruzko soldataren %3koaren igoerarako eskubidea du (5 hirurteko arte, hau da, 15 urte arte).
- Legalki, langileak aparteko bi pagatarako eskubidea du, eta hauetan kobratu beharreko gutxienekoa 15 egun naturaletan kobratzen duenaren adinakoa izango da.

6.4. Kontratuaren amaiera

- Kontratua amaitzeko zazpi egun lehenago gaztigatu behar da; enplegatzailearen kasuan, langileak urte bat baino gehiago badarama, aurre-abisu 20 egunekoa da.
- Aurre-abisu garaian, langileak astean sei orduko baimenerako eskubidea du, soldataren inolako galerarik gabe; dagokion kalte-ordaina eskudiruaz ordezka daiteke eskubide hau.
- Enplegatzaileak kontratuari amaiera eman diezaioke berak nahi duenean era objektiboan eta dakion kalte-ordainarekin: kontratuaren iraunaldiaren urte bakoitzeko 7 egun natural, aurre-abisua 20 egunekoa izango da edo 7koa lan-harremana urte bat baino txikiago bada.

- Irazpenaz mintzo bagara eta epaitegiek bidegabekotzat jotzen badute, langileak lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordainerako eskubidea izango du, 12 hilabete gehienez.

6.5. Gizarte Segurantzza

Lan-kontratua denez, langilea Gizarte Segurantzaz alta emanda egon behar du.

- Enplegatzaileak, etxearen jabeak alegia, berarentzat hilean 80 ordu baino gehiago lan egiten duen norbait daukanean, beroni alta eman behar dio Gizarte Segurantzaz. Langileak enplegatzaile bakar batentzat egiten du lan.
- Etxeko langileari dagokio alta ematea Gizarte Segurantzaz etxebizitza bat baino gehiagotan lan egiten duenean. Kasu honetan hileko zerbitzu-prestamena 72 ordukoa 12 egunetan gutxienez izango da.

- *Kotizazioa*

Kotizazio-oinarria bakarra da eta urtero erabakitzen da. 2008an 679,35 €koa hilean. Kotizazio-tipoa %22koa, eta honen %18,3a (124,35 €) enplegatzailearen kargu eta %3,7a (25,14 €) langilearen kargu.

Enplegatzaile bat baino gehiagorentzat lan egiten den kasuan, langileak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean ingresatu beharko ditu kotizazioen diruak (131,67 €).

Kotizazio oso garrantzitsua da komunitarioak ez direnentzat, bere baimena berritzeko aukera baldintzatzen duelako. Ezinbestekoa da denboraldi batez hilero kotizatzea erresidentzia eta lan-baimena berritzeko (ikus 3.5. Baimenen berritzea).

Hau dela-eta, etxeko langile askok bere partearen ordainketa egiteko prest egingo duenik aurkitzen ez dutenean, kotizazio osoa beraiek ingresatzen dute, txartela berritu ahal izateko.

Baja-egoeretan, haurdunaldian arriskua ematen denean eta amatasunean kotizatzekeo beharra mantentzen da, oraingo honetan langilearen kargu.

- *Gizarte-prestazioak*

- Ez dago aitortuta langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea.
- Sei hilabetez kotizatu behar da baja-prestazioa jaso ahal izateko (baja eta 29. egunera hasten da kobratzen).
- Amatasuneko atsedena 16 astekoa da, eta amak zein aitak goza ditzakete aste horiek, nahiz eta horietako sei amak hartu behar dituen erditu eta gero.
- Istripu baten ondoriozko ezintasun iraunkor partzialean, azken 10 urtetan 60 hilabete kotizatuta izan beharko dira.

3. ATALA. EUSKO JAURLARITZAREN GIZARTE-PRESTAZIOAK

7. Zerbitzu eta Gizarte-Prestazioei buruzko kontzeptu nagusiak

Atzerritartasun araudiak bi egoera desberdintzen ditu. Alde batetik, erresidentzia-baimena duten atzerritarrena; hauek, zerbitzu eta gizarte-prestazioetarako eskubidea dute, bai prestazio nagusi eta oinarrizkoetarako bai berariazko prestazioetarako eskubidea, hemen jaioak direnek duten bezala eta, bestaldetik, oinarrizko gizarte-prestazioetarako (gizarte-zerbitzuak, OE, GPL, eta abar) eskubidea duten atzerritar guztiak, egoera irregularrean direnak barne.

8. Oinarrizko Errenta (OE)

8.1. Zer da Oinarrizko Errenta?

Hileroko sari ekonomiko bat da, baliabiderik gabeko pertsonen oinarrizko gastuei aurre egin diezaieten. OE eskubide subjektiboa da, baldintzak betetzen dituen pertsonari eman behar zaiona, aurrekontu zuzkidura izan ala ez.

8.2. Zein baldintza bete behar da OErako eskubidea izateko?

1. Eskaera egiten den urte bat lehenagotik EIUE-Elkarbizitza Independente Unitate Ekonomiko bat osatzea salbuespenak-salbuespen: ardurapeko adin txiki eta ezgaituak; senar-emazteak edo antzeko harremana; banaketa, dibortzio edo ezkontzaren baliogabetasunaren ondoriozko EIEU berri bat (EIEU zaharretik datozen pertsonak soilik) sortzea; guraso edo tutoreen heriotzagatiko EIEU berria.
2. Eskaera egiten den urte bat lehenagotik EHAEko edozein herritan errolatuta egotea. Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrek ere OE eska dezakete aurretiko urtea errolatuta egon beharrik gabe baina frogatzen badute EHAEan legalki hiru urte bizi izan direla, hiru urte hauetako azken hamabi hilabeteak eskaeraren aurretikoak izan beharko dira.
3. Baliabiderik ez izatea.
4. 23 urte baino gehiago izatea, salbuespenak-salbuespen: ardurapeko adin txiki eta ezgaituak, umezurtza edo ezkontuta izatea.

5. Zer da EIEU?

- 5.1. EIEU arrunta: bakarrik bizi den pertsona, familia bat edo muturreko beharraz elkarrekin bizi diren pertsona bi edo gehiago. Legearentzat familia bat elkarrekin bizi diren bi edo pertsona gehiagok osatzen dute, pertsona hauek adopzioaz, ezkontzaz edo antzekoaz, laugarren maila arteko odol-ahaidetasunaz edo bigarren maila arteko ahaidetasunaz lotuta daude.
- 5.2. EIEU berezia: tratu txarrak jasan dituena; edo EIEU familiar batekin biziko den matrimonio bat edo pertsona bakarrik eta adin txikikorik euren kargura dutenak; edo EIEU arrunt batek abegituriko muturreko beharrezko diren pertsonak, beraien artean familia-loturarik gabe ezta kontra-prestamen ekonomikorik gabe.

8.3. Zein kasutan hartzen da EIEU bat erresidentziaren esparru fisikoaren arabera?

1. Bakarrik bizi diren pertsona eta familientzat:
 - a. Etxebizitza independente batean bizi denean.
 - b. Hotel-establezimendu edo abegi-zentro batean bizi eta egonaldi-gastuak bere kargu direnean.
 - c. Etxebizitza batean beste pertsona edo familiekin bizi eta ko-errenta (alokairu partekatua), azpi-errenta edo ostatze-kontratua duenean, beti ere kontratuaz loturiko pertsona edo familiak familia-harremanik ez dutenean.
2. Muturreko beharrezko egoera frogagarriaz elkarrekin bizi diren pertsona bi edo gehiagok EIEU bat osatuko dute.
3. Tratu txarren biktimek eta pertsona bakarrek edo ezkontzaz edo pareko behin betiko harremanaz elkartuek EIEU osatuko dute familiarren bizilekuetan txartatzen badira.
4. Pairatzen duten muturreko beharrezko abegiko pertsonak EIEU bat osatuko dute, baldin eta abegi ematen dien EIEUk baliabiderik izan, eta beraien artean familia-loturarik gabe ezta kontra-prestamen ekonomikorik gabe ematen denean.

8.4. Zenbatekoa da OE?

2008ko taula								
EIUEren kide-kopurua	Oeren hileko zenbatekoa (LaGSren %88a)	Oeren urteko zenbatekoa	OE eta GPLtarako gehieneko ondarea (4 aldiz OE)	EIUEn hileko baliabideen topea OE eta GPLen 4 eta 5	GPLtarako urteko gehieneko baliabideak (%150)	OE eta GPLen arteko gehieneko zenbatekoa (%175)	GPLtarako gehieneko zenbatekoa (Oeren jasotzaileak)	GPLtarako gehieneko zenbatekoa (Oeren ez jasotzaileak) Oeren %125
1	616	7.392	29.568	3.080	11.088	12.936	5.544	9.240
2	791	8.492	37.968	3.955	14.238	16.611	7.119	11.865
3	861	10.332	41.328	4.305	15.438	18.081	7.749	12.915
4 edo gehiago	875	10.500	42.000	4.375	15.750	18.375	7.875	13.125

GPLtarako urteko gehieneko zenbatekoak kontzeptua						
GPLtarako kontzeptua	Alokairu eta mailegu-amortizazio eta interesengatik ordaindu beharreko gastuak	Etxebizitzaz gozatu eta berau mantentzeko egin beharreko gastuak	Altzariak eta 'Ierro txuri'ko etxetresna elektrikoetarako gastuak	Etxebizitzaren oinarrizko instalakuntzak egokitu eta konpontzeko	Oinarrizko beharrekin loturiko gastuak	Aurretiko zorpetze gastuak
Urteko gehieneko zenbatekoa	3.480	1.110	1.850	1.850	1.850	3.480

Aurten, 2008an alegia, Eusko Legebiltzarraren eraldaketa legal batek LaGS baino txikiago pentsioa duten pentsionisten OE hobetu egin du. Pertsona hauek honakoa jasoko dute: a. Pertsona bakarrekoi EIUErentzat, LaGSren %100a arte (8.400 € 2008an); b. Bi pertsonoz osaturiko EIUErentzat, LaGSren %125a (10.500 € urtean); c. Hiru edo pertsona gehiagoz osaturiko EIUErentzat, LaGSren %135a (11.340 € urtean).

8.5. Nola konputatzen dira EIUEren baliabideak OErako eskubide izateko?

1. EIUE osatzen duten pertsona guztien baliabideen batuketara egin behar da.
2. Honako baliabide hauek dira kontutan hartu beharrekoak:
 - 2.1. Besteen konturako lan-etekinak, azken aitortza fiskalaren zerga-oinarriaren bidez edo azken hiru hilabeteko hileko diru-sarreren zinpeko aitorpenaz.
 - 2.2. Besteen konturako lan-etekinak (hileko gordina deskontatuz, aipaturiko diru-sarreren %2a, gizarte kotizazioak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erretentzioak).

- 2.3. Pentsioak, langabezia-sariak eta laguntzak besteen konturako lanaren etekinak bezala kalkulatzen dira.
 - 2.4. Diru-sarrerak sariez, iraizipenaren kalte-ordainak eta ohikoak ez diren beste diru-sarrerak 60az zatituz kalkulatuko dira eta ondorengo 60 hilabetetako hileko diru-sarreratzat hartuko dira.
 - 2.5. Ondarearen etekinetan EIUE osatzen duten ondarearen ustiapenaren etekin garbi guztiak (alokairuak, intsuldaketak, emateak, finantza diru-sarrerak) sartuko dira. Aurreko sei hilabetetan jasotakoa hartuko da eta 6az zatituko da, ondasun higiezinentzat urteko etekin gordinaren %5a deskontatuko da.
 - 2.6. Arau jakin batzuen arabera EIUEren ondasuna ere baloratuko da: ondasun higigarriak eta higiezinak, tituluak, baloreak eta eskudirua, motorrezko ibilgailuak, lonja komertzialak, bulegoak, nekazaritza-ustiategiak, eta abar.
3. Honako kasuetan esaten da EIUE bat nahiko baliabide dituela eta, ondorioz, OErako eskubiderik ez duela:
- 3.1. Hileko etekin guztien batuketa OEren hileko zenbatekoa baino handiago denean baliabiderik gabeko kasuan eta EIUE osatzen dutenen guztikoen arabera. Lanean jatorria duten diru-sarrerak izanez gero, OEtik kobra daitekeen mugak OE arrunta gaituko du.
 - 3.2. Baliabiderik gabe eta EIUE osatzen dutenen arabera OEren urteko zenbatekoa baina lau aldiz handiago denean EIUEren ondasuna.

8.6. Zein da OErako izapidea?

1. Udalak horretarako jarritako modelo normalizatuan egingo da eskaera. Eta eskaerarekin batera, baldintza guztiak betetzen direla justifikatzen dituzten agiriak.
2. Udalak eskatzaileei adierazko die erabakirako gehieneko epea, baita ere eskaera egin eta hamar egunen buruko administrazio-isiltasunaren ondorioak.
3. Udalak espedientearen izapideak egingo ditu. Akatsik antzemanaz gero, 10 eguneko epea emango du akatsak zuzentzeko.
4. Udalak espedientearen erantzuna emateko duen gehieneko epea 60 eguneko da, eta egun hauek eman ostean erabakirik ez balego, eskaera onartutzat hartuko da (administrazio-isiltasun positiboa).
5. Ezezko erantzunak arrazoitua egon beharko du.
6. Eskaera aurkezten den hurrengo egunetik izango da OEren sortzapena. Ordainketa epemugaturako hilekoaz egingo da.

8.7. Zein bete behar du OEren titularrak?

OE jakiak erosteko erabiltzea; saria aldatu, eten edo amaiarazten dituzten gertaeren berri eman udalari 15 eguneko epean (heriotzak, helbide-aldaketa, aldaketa baliabidetan, erretiro-data betetzea, eta abar); okerreko sariak itzultzea; txertatzerako hitzarmena izenpetzea; enplegu egokirik ez errefusatzeari, eta abar.

9. Gizarte Premietarako Laguntzak (GPL)

9.1. Zer dira GPLak?

Aldizkakoak ez diren prestazioak dira.

9.2. Zeintzuk baldintzak bete behar ditu onuradunak?

1. Eskaera egin aurretik sei hilabetez gutxienez EHAEan erroldatuta egotea.
2. 18 urte beteta izatea; adin gutxikoak, minusbaliatuak eta umezurtzak izan ezik.
3. Nahiko baliabiderik ez izatea.

9.3. Zein da GPLen erregimen ekonomikoa?

1. GPL eta baliabideen zenbatekoa zehazteko EIUE osatzen duten guztiak hartuko dira kontutan.
2. Eskaera bakoitzeko gehieneko zenbatekoa (etxebizitza batean gastu baterako pertsona desberdinek GPL eskatzen badute, eskatzen duen lehenari emango zaio) EIUEren eta bizilekuan diren pertsonen baliabideen zatiduratik kalkulatu da.
 - 2.1. Zatidura hau bat edo bat baino txikiago bada, ezarri beharreko portzentaia %100ekoa izango da.
 - 2.2. Zatidura 1,5 baino handiago bada, ez da laguntzarako eskubiderik izango.
 - 2.3. Zatidura hau bat baino handiago eta 1,5 baino txikiago bada, 200 eta zatidura bider 100etik ematen duen diferentzia izango da ezarriko den portzentaia.
3. Laguntzaren benetako zenbatekoa, gastu bakoitzerako ezarritako urteko maximoa baino handiagoa ezingo da izan ezta eskaera bakoitzerako ezarri daitekeen maximoa baino handiagoa. Zenbatekoa murriztu daiteke aurrekontuen erabilgarritasunaren arabera eta gizarte-zerbitzuek egiten duten balorazioan oinarrituta.

4. Zenbatekoak eman eta hauen konputurako mugak honakoak dira:
 - 4.1. OEren onuradunentzat, urtean zeharreko OE eta GPLen batuketa ezingo da izan EIUEri dagokion OEren %175a baino handiago.
 - 4.2. OEren onuradunak ez direnentzat, urtean zeharreko gehieneko GPLez dagokien OEren %125a izango dira.
5. Honako kasuetan erabakiko da EIUE batek nahiko baliabiderik duela eta ondorioz ez duela GPLetarako eskubiderik:
 - 5.1. EIUEk urteko OE baino lau aldiz handiagoko ondare duenean.
 - 5.2. EIUE berezien kasuan, hau da, tratu txarren biktimez eta euren kargura adin txikikoak dituztenez osaturikoak, baliabideei buruzko betebeharez gain honako hauek gehitu behar zaizkie: etxebizitza edo bizitoki berberean lotura familiarrik ukan eta bizi diren guztien artean OEren gehieneko zenbatekoa baino bost aldiz gehiago ez izatea
6. Etxebizitza bat erosteagatik ematen diren maileguren interes eta amortizazioa ordaintzeko gastuen kasuan, GPLak eman daitezke mailegu gisa udalaren aldeko zor-aitorpenarekin. Gehieneko zenbatekoa, bigarren puntuko zatidura eta portzentajeen arauaren arabera izango da, udalak %100a arte hegi dezake. Maileguak 12 eta 18 hilabeteko gabealdia izango du eta ondorengo bi urtetan itzuliko da interesik gabe.

9.4. GPLen urteko gehieneko zenbatekoak urtean

Eusko Jaurlaritzak, agindu baten bidez, urtero ezartzen ditu zenbatekoak. 2008rako honako hauek dira:

- a. Alokairu-gastuak:
 - a.1. Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, hileko gehieneko laguntza 290€koa izango da, etxebizitzaren alokairu-prezioaren %70a gainditu ezin duelarik.
 - a.2. Batzuen artean etxebizitza errentan hartuta badago edo azpi-errentamenduak ematen badira, ez da onartuko etxebizitzak dituen gelak baino elkarbizitza-unitate gehiago. Laguntza, elkarbizitza-unitateaz zatitzen da eta mugak honakoak dira:
 - 2 elkarbizitza-unitate: 165 € hilean unitate bakoitzarentzat, etxebizitzaren alokairu-prezioaren %80a gainditu ezin delarik.
 - 3 elkarbizitza-unitate: 125 € hilean unitate bakoitzarentzat, etxebizitzaren alokairu-prezioaren %87a gainditu ezin delarik.
 - 4 elkarbizitza-unitate edo gehiago: 105 € hilean unitate bakoitzarentzat, etxebizitzaren alokairu-prezioaren %92a gainditu ezin delarik.

- a.3. Etxebizitzan ostatu edo apopilotza-kontratuak ematen badira, kontratu mota hauekarako gehieneko kopurua etxebizitzaren gelen kopuruarena da, jabearena kontutan hartu gabe. Laguntzen gehieneko zenbatekoak honakoak dira:
- Etxebizitzak ostatu edo apopilotza-kontratu sinatuarekin gela bat beterik badu: 165 € elkarbizitza-unitate horrengatik.
 - Etxebizitzak ostatu edo apopilotza-kontratu sinatuarekin bi gela beterik baditu: 125 € elkarbizitza-unitate bakoitzarengatik.
 - Etxebizitzak ostatu edo apopilotza-kontratu sinatuarekin hiru gela beterik baditu: 105 € elkarbizitza-unitate bakoitzarengatik.
- a.4. Legalki osaturiko hotel, ostatu eta pentsioetan ostatze kasuetan, gehieneko laguntza 230€koa izango da elkarbizitza-unitate bakoitzarengatik:
- Ondare urbanizatu eta eraikitakoaren birgaitze jarduera babestuei buruzko 2002ko abenduaren 30eko 317/2002ko dekretuaren IV. eranskinean ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak bete beharko ditu etxebizitzak, eta eranskinean diona kontutan hartuko da etxebizitzaren gehieneko errentari-kopurua zehazteko.
 - Eusko Jaurlaritzak edo beste administrazio publiko batek edo honen mende den batek sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzetan, ez da alokairurik ordaintzeko GPLik emango, oinarritzko gizarte zerbitzuek gasturako beharrik ez dagoela baieztatzen badute.
- b. Etxebizitza edo ostatu bat erostearen ondorioz zor diren kredituen interes eta amortizazio-gastuengatik:
- 290 € arte hilean, maileguaren hileko interesen edo amortizazioaren guztizkoaren %70a baino gehiago ezin delarik izan.
 - Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan ez da GPLik emango etxebizitza edo ostatu bat erostearen ondorioz zor diren kredituen interes edo amortizazio-gastuak ordaintzeko, oinarritzko gizarte zerbitzuek gasturako beharrik ez dagoela baieztatzen badute.
- c. Ohiko etxebizitza edo ostatuaren mantentze eta honetaz gozatzeko behar diren beste gastuengatik:
- 1.100 € arte urtean.
- d. Altzairuak eta 'lerro txuri'ko etxeko elektrotresnen gastuengatik:
- 1.850 € arte urtean.

e. Etxebizitzaren oinarrizko instalakuntzen egokitzapen eta konponketarako gastuengatik:

- 1.850 € arte urtean.

f. Oinarrizko beharrei loturiko gastuengatik:

- 3.480 € arte urtean.

Aurreko paragrafoan dionari kalterik gabe, a., b., c., d., e., f. eta g. puntuetan azaltzen diren kontzepturen batengatik eragindako aurretiko zorpetzearen urteko gehieneko zenbatekoak, aipaturiko puntuetan aurreikusten diren gehieneko zenbatekoak baino txikiagoak izan beharko dira.

9.5. Zein da GPLen izapidea?

O Erenarena.

9.6. Zeintzuk dira GPLen onuradunen betebeharrak?

O Eren onuradunarenak.